



Esteban IRIGOIEN Arantzako mendi mutilen bestan omenduko dute → 15

## Kirola

2010eko errepasoa → 36-37

### DONEZTEBE → 17

Malerrekako binakako IX. Pilota Txapelketa

### ERATSUN → 20

Inauteriak urtarrileko hirugarren asteburuan

### LEITZA → 26

Ikurrina kentzeko agindua jaso du Udalak

### BAZTAN → 29

Herrietako alkateek kargua hartuko dute



## Santa Barbarara IV. Igoera egingen da larunbat honetan laugarren aldiz Beran

Mantale Mendi Lasterketa Taldeak, Agerra Mendi Taldeak eta Gure Txokoa Elkarteak antolatuta dute, Xabier Zubieta, Loro Pikabea eta Xabier Saralegi gogoan.

BERA → 11



Landa eremuko eskola ttikien arteko elkarlana indartu bidenabar, euren izaera eta lana gizareratzeko helburuarkein bilduko dira Lekarozen. → 4-5

Lekarozen, ilbeltzaren 29an

## Nafarroako Eskola Ttikien I. Jardunaldiak



«Arreta gabezia eta hiperaktibitatearen transtornoak garaiz diagnostikatuz gero, eboluzioa ona da»

Arreta Gabezia, Hiperaktibitatea eta Inpulsibotasuna Tratatzeko eta Ikertzeko Nafarroako Elkartearen lehendakaria da **M<sup>a</sup> Jesus Torres Mendikoa** elbetearra. Duela 12 urte sortu zuen elkarte eta erronka nagusietako bat eskola eta osasun etxeetan arreta espezializatua erdiestea da.

ELKARRIZKETA → 3



# Birziklatu



Ontziek bizitza luzea dute



Kartoiako ontziak, paperrak,  
egunkariak, aldizkariak.



Plastikoako ontziak,  
latak, brikek.



Beirako botilak,  
faskoak, potsek.



Barakaldo  
Hiru Herrietako  
Mankomunitatea



Marenegiko  
Zehitu onakortze  
Mankomunitatea



ECOEMBES  
SEPARAR PARA RECICLAR

2010.urtean

# 979

LAGUNEK  
egin dute  
gure alde

*eskerrik asko!*

\* Argazkia: Lamenias

x geure bezeroek x  
aukeraturfako  
x proiektua can

Arreta Gabezia, Hiperaktibitatea eta Inpulsibotasuna Tratatze eta Ikertze Nafarroako Elkartearen sortzaile eta lehendakaria da M<sup>a</sup> Jesus Torres Mendikoa elbetarra. TDAH

–arreta gabezia eta hiperaktibitatearen transtornoa– duen alabaren egoerak bultzatu zuen elkartearen sortzera. Egunkarian iragarkia paratu, kafetegian batean TDAH duen neska-mutikoen

sei ama bildu eta halaxe eratu zuten, 1998an. Gaur egun, 175.000 euroko aurrekontua dute elkartearen eta 400 bazkide, baina azterketek Nafarroan TDAH duen 3.000 daudela diote.

M<sup>a</sup> Jesus TORRES | TDAHaren Nafarroako Elkartearen sortzailea eta lehendakaria

# «Hiperaktibitatea eta arreta gabezia esker oneko transtornoak dira»

G. PIKABEA | ELIZONDO

**12 urte eta erdi egin dituzte elkarteak. Zein balorazio eginen zenuke?**

TDAH duen seme-alabaren bat baldin baduzu, gizarteak mezu negatiboak transmititzen dizkizu, eta elkartearen sortu genuenean, lehen aldiz, ez nuen alaba arazo bezala ikusi. Hori da gurasook egin behar duguna. Bertzela, ezin diozu lagundu eta ondorioz, sufritu egiten dute. Orain 12 urte bakarrik ginen, eta orain estatu mailan herrialde bakoitzean ia badago elkarte bat. Lehen medikuek ere ez zuten ulertzen zer zen TDAH, eta orain gutti goitibeheiti badakite. Balorazioa, beraz, positiboa da, baina oraindik aunitz gelditzen da egiteko, informazio falta aunitz dago. Batzuk TDAH duen jokoera eurek horrela nahi dutelako dela uste dute. Eta ez da hala. Haur hauek jaiotzetik horrelakoak dira, baina sintomatologia hori landuz gero, ezinezona eta despistatu den haur baten bertze ezagarririk izatera pasatu daiteke, ondorio larriagorik izan gabe.

**Noiz erran daiteke norbaitek TDAH duela?**

Begiratu hutsean ezin da erran, diagnostikoa egin behar da. Gurasook nabaritzen dugu lehenbizi eta gero ikastetxean, eszeptantzia akademikoak



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

M<sup>a</sup> Jesus Torres Arreta Gabezia, Hiperaktibitatea eta Inpulsibotasuna Tratatze eta Ikertze Nafarroako Elkartearen sortzaile eta lehendakaria da.

zenbat eta haundiagoak izan, transtornoaren sintomak gehiago ateratzen dira. Gauzak antolatuz, ordenatuz, aurreikusituz, denboran kokatuz... Horiek ez dituzte berezkoak, baina landuz gero, ikas ditzaitezke. Aditu batek nerabe bati idatzitako eskutitz batean honela deskribatu zion: «zure burua telebista pantaila bat bezalakoa da, momenturo katez aldatzen ari dena». Lehen urratsa pediatriarengana joatea da. Pediatrik test bat eginen die gurasoei eta proba batzuk eskatuko dituzte eskolan. Emaitzaren arabera, Buruko Osasun Zentro-

## ERRONKAK

**«Eskola eta osasun etxeetan arreta espezializatua eskaintzea nahi dugu eta hori Administrazioari dagokio. Gurasoei, berriz, TDHA esker oneko transtornoa dela, laguntza bila dezatela eta nahiz eta erraza ez izan, lan eginez gero, etorkizun ona izanzen dutela erranen nieke»**

ra bidaliko dute terapia egitera. Eta gero medikazioa dago, neurologoak edo psikiatrak ematen duena. Azterketa psikopedagogiko sakona ere egin behar da bertze patologiak baztertzeko. **Zein eboluzio dute TDAH duenak?**

Arras ona, beti ere, lana ongi eginez gero. Zenbat eta gehiago ezagutu umea, orduan eta hobeki landu daiteke. Eta garaiz diagnostikatuz gero, etorkizuna hobea izanen du. Batzuk unibertsitateko titulua lortzera ere ailegatzeko dira. Gizartearen etengabeak dira mezu negatiboak, arazo guztiak

haurren erruz direla eta gurasook ez dugula hezitzen asmatu ikusarazten dute. Baina gurasook transtornoa ongi ezagutu behar dugu eta etorkizuna itxaropenez landu.

**Zein zerbitzu eskaintzen dituzue elkartearen?**

TDAH duen seme-alabaren gurasoendako eskola psikohezitzailea eskaintzen dugu, baita laguntza psikologikoa haur, nerabe eta gurasoentzat ere. Autolaguntza taldeak edota haur eta nerabeei zuzendutako tailer psikohezitzaileak ere badira. Azken honetan, Reto eta Si programak ditugu, ikasleari banakako laguntza eman eta trebetasuna garatzeko lehen, eta autoezagutzak sustatu eta ikastera motibatze berriz. Biak ere euskaraz eta gaztelaniaz eskaintzen ditugu eta estatuan programa hauek ditugun bakarrik gara. Jardunaldiak, hitzaldiak, kanpaldiak, familia txangoak... ere egiten ditugu. **Zein erronka dituzte elkarteak?**

Eskola eta osasun etxeetan arreta espezializatua eskaintzea nahi dugu eta hori Administrazioari dagokio. Gurasoei, berriz, TDHA esker oneko transtornoa dela, laguntza bila dezatela eta nahiz eta erraza ez izan, lan eginez gero, etorkizun ona izanzen dutela erranen nieke.

HEZKUNTZA → LANDA EREMUKO ESKOLA TTIKIAK

# Eskualdeko ikasleen %32 inguru landa eremuko eskoletara joaten da

Baztan, Bertizarana, Bortzirriak, Malerreka, Urdazubi-Zugarramurdi, Areso eta Goizuetan 23 eskola ttiki dira

74 ikasle ditu haundienak, Etxalarrrek, eta lau baino ez ttikiak, Eratsunek. Desberdina da bakoitzaren egoera, baina badira lotzen dituzten ezaugarri batzuk: herrietako esko-

lak dira, publikoak, eta landa eremukoak. Ez dute eskola haundiek adina baliabide, baina haundiek eskaintzen ez dituzten bertze hainbat gauza dute emateko.

## G. PIKABEA

Hiri eta herri haundietan dituzten zerbitzu eta azpiegitaririk gabe, eta gabezia eta oztopo gehiagorekin, baina egunero-egunero lan haundia eginez, herriei ekarpen haundia egiten diete eskola ttikiak. Ttikiak dira bai ikasle eta giza baliabideen aldetik, bai ekonomikoki, bai espazio aldetik edo baita zerbitzu aldetik ere. Ttikiak bai, baina ez eskasak.

Gelaren batean behintzat adin desberdinetako ikasleak izatea da landa eremuko eskola ttikiak ezaugarri nagusietako bat, eta urteekin eskola aunitz desagertu badira ere, daudenek aitzinera egin nahi dute. Azken 30 urteotan 20-25 eskola desagertu dira Nafarroan, eta itxitako bakar bat bera ere ez da ireki geroztik. Eskualdean ere badira kasuak: Ezkurra, Zubieta, Berroeta, Iruritan bi zeuden garai batean... Haur kopuru murriztagatik itxi ziren. Gauregun, landa eremuko eskola ttikiak kontsideratzen diren 23 esko-

la daude eskualdean eta horietan 767 ikasle. Haur eta Lehen Hezkuntzetan hemen dauden ikasleen %32 eskola ttikietan daude (Sara eta Senpere kontuan hartu gabe).

**Baztanen** 10 eskola ttiki daude (Amairu, Ziga, Oronoz, Azpilkueta, Arizkun, Erratzu, Irurita, Gartzain, Almandoz eta Arraioz) eta **Urdazubi-Zugarramurdiko** eskolarekin batera, 11 ikas-

tetxe eta 336 ikasle dira. **Malerrekan** eta **Bertizaranan** 7 eskola eta 161 ikasle daude (Beintza-Labaien, Saldias, Eratsun, Ituren, Sunbilla, Narbarte eta Legasa). **Areson** eta **Goizuetan** 88 ikasle dira eta **Bortzirietan**, Arantza, Igantzi eta Etxalarko eskoletan 182 ikasle. Nafarroako landa eremuko eskola ttikiak elkarteko kideak dira. Lesaka, Be-



Areso, Goizueta eta Leitzako neska-mutikoak eskolen topaketan.



Malerreka eta Bertizaranako eskolen topaketan haurrak jolasean.

ra, Elizondo, Doneztebe eta Leitzako ikastetxeak landa eremuan daude, baina adin bakoitzeko gela bat dute eta beraz, ez dira eskola ttiki kontsideratzen.

Zaila da eskola ttiki guztiekin argazki bakkarra egitea, bakoitzaren egoera ez baita berdina. Etxalarizanen da elkarteko haundienetarikoa bat, zortzi gelarekin, eta ttikiak Azpilkueta, Saldias,

Eratsun, Beintza-Labaien eta Legasakoak dira, gela bakarrekoak.

## KOORDINATZAILEAK

2006/2007 ikasturtean Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak eta sindikatu batzuek (STEE-EILAS, CCOO eta UGT) Hezkuntza Hobekuntzarako Ituna sinatu zuten, eta orduan banatu zen Nafarroa landa eremuko 11 zonatan. Alde batetik daude Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdi; bertetik, Malerreka, Bertizarana, Areso eta Goizueta (Betelu eta Jauntzarasekin batera) eta hirugarren multzoan Bortzirietako hiru eskolak eta Sunbilla. Eskualde banaketa horren ondotik agertzen koordinatzailearen irudia ere. Horren berri ongi dakitenak dira Eneko Fernandez, Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdiko eskoletako koordinatzailea, lanaldi osoan horretara dedikatzen dena; Mikel Gereka Malerreka eta Bertizaranan irakasle lanarekin koordinatzaileare-



EGOERA HOBETZEN

«Jendea existitzen garelako konturatzen arida, batik bat, aurpegia sartzen dugulako»

Eneko FERNANDEZ  
Baztango koordinatzailea



EREDUGARRIA

«Unibertsitatean erakusten diren estrategia asko eskola ttikiak egunerokoak dira»

Mikel GEREKA  
Malerrekako koordinatzailea



BORONDATE KONTUA

«Borondatea eta gogoia behar dira horrelako proiektu batekin; denbora badago»

Jose Mari REMIRO  
Bortzirietako ordezkaria



1. Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskolen besta.



1. Arantzako eskolakoek Igantzi eta Etxalarkoentzat antzerkiak egiten dituzte.

na tartekatzen duena eta Jose Mari Remiro, duela bi urte Bortzirietako koordinatzailea izandakoa. Hiru herrietako ordezkarien artean banatu dute orain ardura.

Baztangoa izan zen aitzindaria, ituna onartu zenekoa: «Baztanen koordinaketak lau urte ditu eta funtzionamendua hagitz ona da», dio Fernandezek. Halere, gabeziak «aunitz» dira. Horren adibide, tailerrak egiteko tokirik gabe daudela kontatu digu. Eskoletara etortzen den jende berriari ohitzea «kostatzen» zaiola ere azaldu digu, «magisteritza eskoletan eta euren errealitatean ez dutelako hemengo egoera ezagutzen».

Horrelako proiektu batean sinistea «hagitz garrantzitsua» delakoan dago Fernandez, «eta militantzia puntu bat» ere behar omen da. «Urteetan koordinazioa mantendu da Baztanen, baina gatazkak ere izaten dira. Koordinazioa sendo dagoenean ere zaila da mantentzea».

Bortzirietan, duela bi urte langile bat koordinatzaile gabe geratu zen. Baina iaz orduak banatzea proposatu zieten eta aurten ere hala egin dute, nahiz eta Remirok azaldu digunez, aurten ere pertsona liberatu bat horretara dedikatzeko aukera eman. «Banatuta segitzea erabaki genuen». Etxalaren, «egoera ona» delakoan dago Remiro, «beharrak ere badaude, eta konplexuak, baina atenditzeko bada-gu jendea». Ttikiagoak dira Arantza eta Igantziak eta bere irudiko, «eskola ttikietan beharrak haundiagoak dira». Borondateari buruz ere aritu zaigu: «borondatea eta gogoia behar dira, denbora badago».

Malerrekan, «koordinatu gabeko toki bat koordinatzea» tokatzen ari zaio Gerekari, eta bere hitzetan, «ez da batere erraza». Horretan sinistu behar da. «Malerrekan urteetan talde bat bezala funtzionatu zen, baina hainbat arrazoi tarteko, azken aldian bakoitzak bere aldetik ibili da.

**JARDUNALDIAK ILBELTZAREN 29AN**

## Nafarroako landa eremuko eskolen jardunaldiak Lekarozen

Aurten lehen aldiz, Nafarroako Landa Eremuko Eskola Ttikien Jardunaldiak egingen dira ilbeltzaren 29an, Lekarozko Irakasle Laguntza Zentroan. Landa eremuko eskolak ezagutaraztea da helburua, beraien izaera, antolaketa eta lana, hain zuzen. Aldi berean, eskolen arteko elkarlanaren berri eman nahi da eta emanen diren hurrengo pausoak finkatu. Maisu-maistren arteko elkarlanerako zubiak eraikitzeke ere baliatu nahi dira jardunaldiak, eta eskola bakoitzaren lana bertzeekin konpartitzeko ere bai. Interesa duten irakasle guztiei zabalik daude eta hilaren 19a baino lehen apuntatu behar da.

• 10:00 Harrera.

- 10:10 Aurkezpena.
- 11:10 Web orriaren aurkezpena.
- 11:45 Atsedendaldia.
- 12:00 Tailerrak. Txanda bakoitzean tailer batera joateko aukera. Lehen txanda (12:00)
- Emozio hezkuntza Berrikuntza Proiektua (Igantziko eskola). Euskaraz.
- Kulturgintza (Urdazubi-Zugarramurdi-ko eskola). Euskaraz.
- Zientzia eskolan (Garralda eta Auritzberriko eskolak). Gaztelaniaz.
- Gure inguruko ipuin eta kondairak (Lizarralde). Gaztelaniaz.
- Bigarren txanda (13:00)
- Emozio hezkuntza Berrikuntza Proiektua (Igantziko eskola). Euskaraz.
- Kulturgintza (Urdazubi-Zugarramurdi-ko eskola). Gaztelaniaz.
- Zientzia eskolan (Garralda eta Auritzberriko eskolak). Euskaraz.
- Gure inguruko ipuin eta kondairak (Lizarralde). Gaztelaniaz.
- 14:00 Osoko bilera eta ebaluaketa.
- 14:30 Bazkaria Iruritan (Olari jatetxea).

Orain talde bezala funtzionatzeko prozesuan gaude, proiektu komun batzuekin, ez ateraldiak egiteko bakarrik».

Halere, beldur dira Hezkuntza Sailak koordinazioaren irudia desagertuko ote duen. Trabak ugariak direlako, eta berriki, adibidez, koordinatzaileei kilometrajeak kendu dizkietelako.

Itunarekin gauza aunitz bete gabe gelditu direla ere kritikatu dute Fernandez eta Gerekak: «ikasle kopuru jakin bate-tik aitzinera eskoletan administraria jarriko zela erran eta ez da egin, saio kopuruak jaistekoak ziren eta ez dira egin...». Aldiz, Etxalaren ongi atez dirira: «itunarekin gelak zenbat ikasletik goiti baina daitezkeen zehaztu da eta aurten zortzigarren gela lortu dugu eta horri esker zabaldu da eskola berria», azaldu digu Remirok.

### GABEZIAK ETA ABANTAILAK

Ez dira gutti eskola ttikien gabeziak: arlo ekonomikoan ateraldiak, die-

ta eta kilometrajeak funtzionatzeko arazoak dituzte; giza baliabideen aldetik ordezkapenak eta lanak banatzeko arazoak dituzte; espazio alde-tik zenbaitetan ere eskas dabilta; deialdiak eta programak eskola haundiei begira eginak izanda ttikiak aukerarik gabe uzten dituzte...

Baina dena ez da txarra, eta abantailak ere bada- dira: «adin ttikiagoak ikasi egiten dute helduagoekin eta zaharragoek, berriz, aitzineko urteetako edukiak errepetatzen dituzte», dio Baztango koordinatzaileak. Eskola ttikietan irakasle eta ikasle guztien elkar ezagutzen dutela ere gogoratu du Gerekak, eta gurasoekin harremana zuzena dela ere bai. Gaineratu duenez, «eskola ttikiak herriko gune eta motore garrantzitsua dira, eta batzuetan herriko eginkizun kulturalen euskarri bakarrak». Pedagogikoki «eredugarriak» direla ere aipatu digu: «Unibertsitateko pedagogia klaseetan, metodologia eta didak-

tika klaseetan erakusten diren estrategia asko eskola ttikietan egunero-koak dira». Gero eta hobe-ki ikusten dituzte inguruko eskola ttikiak: «oraindik aunitz falta da—dio Fernandezek—, baina orain urte batzuk inor ez ginela eta existitzen ez ginela kontuan hartuz, hobeki gaude. Hortik nahiko genukeen zati haundia gelditzen da, baina jendea konturatzen ari da existitzen garelara, batik bat, uzten diguten toki guztietan aurpegia sartzen dugulako».

Eta badute borrokan segitzeko gogoia. Harro daude egiten dutenarekin, eta egiten dutena ezagutarazi nahi dute. «Bertze leku aunitzetan, horrelako gauzak sarituak eta mirestuak dira eta hemen badaezpada ez dugu eskolatik ateratzen egindako lana. Juxtu kontrakoa egin behar dugu, harro egon egiten dugunaz», aipatu digu Baztango koordinatzaileak. Horrez gain, ttiki izatearen izaera errespetatzeko eskatu diote Udaleri eta Hezkuntza Sailari.



**Nire txanda**  
Iñaki ALUSTIZA

## Zoriontasuna denontzat!

**G**arbi dago. Edozeinek ikus dezake. Gizakion benetazko poz, lasaitasun eta zoriontasuna gaitzear dago. Uste badugu, auto berri batek, etxe eder batek, azkeneko mobilak edo kontu korrente potolo batek, zoriontsu egingo gaituela... oker gabiltza. Gizarte kontsumitzaileak, zoriontasunaren bidea "edukitzea" izango dela saltzen digu; erosi eta aspertzen garenean aldatzea direla gakoak. Burutan dugun hori lortzen dugunean konturatu gara, "hori" izatea ez dela nahikoa eta segidan publizitateak beste zehozker proposatuko digu, berriz ere okerrekeko bidetik saia gaitzen. Planteamendu horretan loturik geratu gara. Nor garen eta zerk egiten gaituen zoriontsu atzenduko dugula. Gure benetako "beharra" ez sentitzea, estrategia bat ote da, giza frustrazioak sortzen duen minaz ez jabetzeko? Arrazoi duk, Erich Fromm.

**Gure benetako «beharra» ez sentitzea estrategia bat ote, giza frustrazioak sortzen duen minaz ez jabetzeko?**

### Ezpala

Aitor AROTZENA

## Mendi mutilen itzulera

**A**stelehen goizaldetik igande eguerdira arte lana, udaberriari hasi eta Eguberriak arte etxetik urrun, lan baldintza kaxkarretan... Duela 30-40 bat urte arte hainbat herri mutil gazte zuzen ziren hauek "Frantzialdera" mendian lan egitera joaten zirenean. Berriz ere horretara itzuliko ote gara? Garai hartarako soldata ederra jasotzen zuten orduan. Orain, hori ere ez.

### Nabarmentzekoak



Pedro GOIENETXE  
Elbeteko alkatea

Azkeneko lau urteetan alkaterik eta Junta Generaleko ordezkariarik gabe egon ondotik, Pedro Goienetxe alkatea buru duen lan taldeak hartu du Elbeteko herriko aferen ardura.



Mª Dolores SARRATEA  
Zilarrezko Titarea


Santa Luzia Egunean, Doneztebeko Udalak emandako Urrezko Titarea jaso zuen eta sari hori bere ahizpa zena-erentzat, Mercedesentzat ere bazela aipatu zuen hunkiturik Doloresek.



Tiburtzio ARRAZTOA  
Laxoaren ikerlaria

Pilota modalitate zaharrena ederki ezagutzen duenak (pilotari, txapel-dun, antolatzaile, epaile eta batez ere, ikerle izan da) «Laxoa, la pelota en la plaza» liburua argitaratu berri du.

Atzera begira → 2002.01.10 / TTIPI-TTAPA 317. zbk



### Gorren eta muttuen komunikazio tresnak ezagutzen

«Zeinuen hizkuntza: gorren eta muttuen komunikazio tresna ezezaguna» izenburupean jende guttik erabiltzen dakien hizkuntza mota honi buruz aritu zen ttipi-ttapa duela 9 urte. Elixabet Iturria arantzara ari zen zeinuen hizkuntza ikasten Donostian eta berak zioenez, «ez dira bakarrak eskuak erabiltzen, aurpegia eta gorputza nola jarri ikasi behar izan dut». Argazkian ageri den Tere Bielsa elizondarraren esperientzia ere biltzen zen erreportaiari. Meningiti baten ondorioz, 61 urtetan gorra gelditu zuen eta ezpainak irakurtzen ikasi behar izan zuen: «Beldurrik gehien ematen didana karreteran kotxeen asotsa ez entzutea da».



**Argitaratzailea** Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Zuzendaria** Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mingegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Itxaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...

**Fundazioaren Presidentea** Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

**Lege Gordailua** NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

**Erakunde laguntzaileak** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

#### 2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	.....37€	Europa	.....55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	.....31€
Ipar Euskal Herria	.....55€	Amerika eta Australia	.....123€	Leitza	.....15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



## Kolaborazioak

### Hutsik daude aulkiak

Joseba URKIOLA (Leitza)

**A**spaldion modan jarri da aulkiak hutsik uztea. Halaxe geratu dira; Bakearen Nobel Sariaren eta Europako Batasunak ematen duen Sarajov Sariaren jezarlekuak. Erabat hutsik. Liu Xiabook eta Guillermo Fariñasek ezin izan dute Suediara eta Bruselara joan. Txinako eta Kubako gobernuak ez dituzte begi onez ikusi, bi sari emateen argudioak.

Baina zoritxarrez ez dira hutsik geratu diren aulki bakarrak. 2005ean Lurdes Iriondok eta 2008an Mikel Laboak egin moduan, neguaren lehen oinatzeak hutsik utzi dute euskal kantagintzan beretua zeukan hitzez, artez eta sentimenduz bestitutako aulki xumea.

Uraren ertzean zegoen errota zaharra betirako geratu da. Eta orain ez du negar egiten aleak xehetzean, malkoa Lurdes eta Xabier, Xabier eta Lurdes falta dirrelako isurtzen du. Orain bi urteko udazken amaieran, karririk lehen aldiz elurrez jantzi eta agur esan zuen Mikel Laboak. Nola diren gauzak, lehen elur malutekin, abenduaren 4an, Euskararen biharamuneko egunean, Durangoko azokak atekak ireki berri zituenean, Xabier Letek utzi egin gaitu.

Alaitasuna eta umorea, lagun zituen poeta triste antzekoa zen. Ez zuen izutzen negu hurbilean arnasa galdu beharrak. Eta ziur zen, ardo berriak onduko zituela mahasti eta nahien zaharrak. Orainak arrazoituko zituelarik beste batzuen biharrak. Eguneroko gurgilaz hitz egiteaz gain; bizitzari eta heriotzari ere abestu zion. Atzokotik, biharrerako zubi lana egin zuen. Argi zeukan poetak izpirituaren iluntasunetik, hitzen argitasuna plazaratu beharra zeukala.

Damua, maite izandakoei lehial ez izanak sortzen zion. Mina, aita zuenarekin pasa ez dako denborek ekarzen zioten. Dolua eta atsekabea, Lurdes Iriondo lagun, emazte eta adiskidearen agur behartuak sortu zion. 2005eko heriotzak askoren ustez aldaketa handia sortu zuen artistarengan. Patuak hala nahita gainera, Iriondoren urteetako promesa bat ezerezean geratu zen. Urte askoan ez zuela utziko abestu zuen Lurdesek. Gauean negar egin arren, eguna argitzean poztu egingo zela. Baina orduak pasa, egunak etorri eta urtarok finkatu arren; malkorik gabeko negarra, dolua eta atsekabea erabat barruntatu zitzaizkion Leteri.

Badakigu jakin iragan denbora arrotza berriro etorriko balitzaio, bainilla artean berdin kontsumituko zukeela. Sinistun osoa izan ez arren, honakoa berak idatzia da; "Sinisten dut egun batean egun batean hilen naizela, hutsean eroria, ezerezean amildua, hauts bihurtuko naizela. Sinisten dut hartuko nauen lur horretan landare berriak sortuko direla, landareetatik zuhaitzak, zuhaitzetatik loreak, loreetatik fruituak eta fruituetatik gizonak eta abereak bazkatuko direla".

Iritsi da eguna. Baina kontuan hartu; zure hitzek, egintzek esanek eta bizipenek hemen jarraituko dutela. Zure lurreko etorkizunaren ikas bazka izango direla. Mila zorion, izarrek hautsa daukatela erakusteagatik eta tristuran alaitasuna dagoela irakasteagatik.

### Hispania eta Espainiako nazionalismoa

Mikel RODRIGUEZ LANDA (Lesaka)

**E**spainiako Antena3 telebista katean bada telesail bat Hispania izenekoa, nahiko arrakastatsua izaten ari dena. Erromako inperioaren aurka altxatu zen Viriato buruzagi lusitaniarraren borroka du argumentutzat. Garai horretan espezialistak diren hainbat historialari espainiarrek kritika gogorak egin dizkiote telesailari, akats historiko aunitz baititu. Hala ere, inork guttik erreparatu dio telesail horretan antzematen den subkontziente politikoari. Viriato Hispaniako askatzaile bezala ageri zaigu, eta bere burua hispanotzat du. Bete betean, gidoilariak edo telesailaren egileek, gaur egungo optika politikoa eman diote Viriatori. Viriato nor izan zen erromatarrek hari buruz idatzi zutenari esker dakigu.

Lusitania deitu zuten herriaren buruzagieta-ko bat izan zen. Hispania erromatarren askatzaile zena, Pirinotatik hegoaldera konkistatu zuten lurrari eman zioten izena, eta euren inperioaren zati administratibo bat bilakatu zutena. Lur haretan, ordea, hainbat herri eta etnia ezberdin bizi ziren, elkarrekin harreman, ona, txarra edo, bertzerik gabe, harremanik ez zutenak. Espainiarrek, ordea, nahita edo nahigabe, beraien nazioa eta estatua beti existitu izan balira bezala jokatzeko dute. Horregatik, erromatar garaiko Hispania gaurko Espainiaren baliokidetzat jotzen dute, demonstratzeko Espainia beti egon dela batuta Historian, eta, horregatik, gaur egun ere batuta segitu behar duela. Hispania telesailak arrotzaren aurka borrokatzen duen heroi espainiarren rola eman dio Viriatori, gaur egungo espainiarrek euren imajinarioan argi eduki dezaten eurek beti izan dituztela Espainiako batasunaren alde borrokatu duten heroiak. Ez dute ikusi nahi, gaur egungo espainiarren arbasoak Erdi Aroko gaztelarrak direla, eta, Espainia, Gaztelak penintsula osoa bere koroapean batzeko proiektu konkistatzailea baino ez dela, XVI. mendean odolarekin eta bolborarekin hezurramitu zutena –gero Portugalek independentzia lortu zuen arren-. Viriato Espainiaren Historiako pertsonaiatzat jotzea astakeria galanta da. Viriato eta bere herria Erromak desagerrarazi zituen, betirako, eta Erromak penintsulako herriak desagerrarazi ez balitu, gainera, gaztelarrik ez zen egonen, Gaztelarrik ez zen existituko, eta seguru aski, ezta Espainiarrik ere.

«Horregatik, erromatar garaiko Hispania gaurko Espainiaren baliokidetzat jotzen dute, demonstratzeko Espainia beti egon dela batuta Historian, eta, horregatik, gaur egun ere batuta segidu behar duela»

## Irakurleak mintzo

## Lesakako PNVri erantzuna

Jose Manuel MERINO  
Lesakako Onin Udal Taldea

EAJ/PNV udal-taldea argitaratu duen Buletinari erantzuna emateko, Onin Udal Taldeak hainbat kontu argitu nahi ditu.

1) Erraten duzue Lesakak 6 milioi euro jasoko dituela obrak egiteko EAJ/PNVri esker, baldin eta horiek behar bezala kudeatzeko gauza bagara. Gure ustez, horretarako jasotzen dute politikariek soldata ederra, ezta?, beren lana ongi egiteko. Eta, gara erraten duzuelarik, zuen taldeari buruz ari zarete, orain arte oposizioari eragotzi baitozue aurrekontuekin lotutako edozein gaitan parte hartzea, eta ikusten dugu ez zaudetela oso seguru Udalean zuen taldeak duen kudeaketa-gaitasunaz; ez gara batere harrizten. EAJ Udalean egon den bitartean, ia 100 milioi pezeta gastatu dira Kultura-Etxerako proiektuetan, azken 10 urteotan, eta, egun, paper bakarra dugu Udalean.

Eta udal honek duen zorbizua, hain zuzen, horixe da: 6 milioi euro.

2) Cornelia Lecuona fundazioari eta Patronatuari dagokionez, erraten duzue: "jabetza pribatuko ondasunak dira" eta Udalak ez du tartean sartu behar.

Hori Juan Fermin Mitxelena zuen alkateari galdetu beharko diozue, Fundazio horren lurrak

saldu nahi izan baitzuten, Kristoneakoak, (Udalan onartutako bi txekerekin), patronatu-ko bertze bi alderdiei okerkeria horren berri eman gabe; zuen zoritxarrerako, Oninek salatu zuen gertaera hura.

Oninen eginkizun eta betebeharrak da herriko edozein talde sozio-kulturali arreta ematea, edozein dela ere haren izaera. Eta talde horiek eskatzen dizkiguten gaiak plenoan eztabaidatzeko ekarriko ditugu.

Azaroan, kultura-taldeen bilera bat eskatu zuten, bi gai hagitza garrantzitsu eztabaidatzeko, Landazelaiak eta Kultura-Etxea, eta zuek ez dituzue presazkotzat jo eta Landazelaietako hirigintza-planaren hasierako onespina adostu duzue. Hori bai, plana onetsi eta gero, bilerara deitu dituzue. Zer kontatu behar diezue? Landazelaietako "adriilu-pagotxa" onartzen duzue eta, mozioei zuzen buletinaren ematen diezue erantzuna, Udalean oraindik landu gabe daudelarik.

Lesakako EAJri bakarrik inporta zaio Udalaren diru-kutxak bete ta egotea, nahi duten bezala erabiltzeko; kutxak, jakina, denon artean bete behar ditugu, eskatu duten 700.000 euroko maileguarekin ikusi dugun bezala.

Onin herriko bigarren indar bozkatuena izanda ere, ez zaigu kasurik egin eta betoa jarri zaigu aurrekontuak egiteko eta betearazteko. Hau da, zuek prestatzen duzue, zuek betearazi,



## Bota bertsoa

Maddi Ane TXOPERENA • Doinua: Ez nau izutzen negu hurbilak

## 2010 urteari azken begirada

2010 urte zaharrari bota nahi diot pintzela: egunkariak auzia lortuz berdez hasi zen horrela munduko kopaz harro jarri zen España gorri txepela ETA-k su beltza itzali zuen argia piztuaz bela zazpi emazte more akatuz genero indar krudela ta Xabier Lete joan zen neguko zeru iluna bezela... Nahiz egia den kolore zenbait tokiz aldatu direla iduritzen zait urtero kuadro berdina margotzen dela.

Urte berria etorri eta zenbat desira, zenbat zin hasieratik begiratuaz ikusten baita ezberdin: ea aurtengoan laranja, berde, hori, marroi edo urdin haserre merke guztiak ahantzi eta gauden elkarrekin...! Eskatu; beti eskatzen dugu baina gero bete ezin beraz bidea egiteari behar genioke ekin hemendik urte batera berriz pintzelarekin horren fin marraztutako kuadroa pixkat alaiago izan dadin.

eta guk ordaindu behar dugu.

Herri gehienek, defizita murrizteko, beste-tako aurrekontua %30 guttitu duten bitartean, zuek, diru nahikoa eta sobera zenutenez (udalaren dirua) iaz baino aurrekontu handiagoa erabili duzue. Hedabide eta aurrekontuetan iragarritako 63.000 euroetatik, kontabilizatu diren 95.000 eurora pasatu da; hau da, 2009 an baino %50 gehiago edo, 32.000 euro gehiago, alajaina!

## Non dira Leitzako EAKo zinegotziak?

**Eneko ASTIBIA**  
Osoko bilkuran izan ginen herritar batzuen izenean

Abenduaren 15ean, Auzitegi Nazionalak aginduta, Leitzako herritar batek epailearen

aurrean deklaratu behar izan zuen, terrorismoa goratzeaz akusatuta. Leitzako pestetan jarritako karpan zeuden pankartek eta argazkiek eman diote aitzakia estatuari herritarrek jazarri eta eskubide zibil eta politikokoak berriz erasotzeko. Pesta herritakoak antolatzeak ahalginaren aurka ekin diote oraingoan, eta larri da, larria denez. Hasarrea eragin du, jakina, herritarren artean.

Baina ez da hasarrea eta amorrua eragin duen bakarra. Izan ere, Jose Jabier Sestorainen aurkako ekintza hori dela eta Udalak deitutako Osoko Bilkuran, herritar bati ezinbesteko elkartasuna eta babes eskaintzeko unean, Leitzan EAK dituen hiru zinegotzietatik ez zen bakar bat ere bertaratu. Han zen PPko ordezkaria, espero bezala elkartasuna adierazteko gai izan ez bazen ere. Baina EAKo ordezkariak ez

zuten elkartasunik eta babesik adierazi, eta, batek daki zer azterketa politikoren ondorioz, Batzarrera ez joatea erabaki zuten. Euskal Herrian askatasun zibil eta politikoen aldeko ekimen eta gogo indartsuak gauzatzen ari diren une honetan, egoera demokratiko baten aldeko elkarlana gorputzen ari den unean, Leitzako EAKo ordezkariak beselako jarrera bat hautatu dute. Jose Jabier Sestorainek Udalaren gehiengoaren babesa jaso zuen, baina ez EAKo ordezkariena.

Herritar baten aurkako prozedura bidegabea eta zentzugabea abiatu denean, herri osoari egindako erasotzat uler daitekeen ekimen bat guzaten ari denean, ez da gordezko eta ihes egiteko unea. Hori egin dute, zoritxarrez, EAKo zinegotzietatik, eta ezin salatu gabe utzi, gertaera larria iruditzen baitzaigu.

**IRAKURLEAK MINTZO** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57



**Prentsatik bildutakoak**



«Sarako gaztetxea 1988an jaio zen. Nik beti entzun izan dut Iparraldeko zaharrena dela. Nire izeba bat izan zen sortzaileetako eta hark kontatua dakit. Herriko plazan dagoen etxe zahar batean sartu ziren, eta, lehen solairua garbitu eta leihoak ireki zituzten. Ondoren eskatu zioten Herriko Etxeari lokala erabiltzeko baimena. Orain herriko elkartearen etxea da».

**Mattin ORONZO**  
Sarako gaztetxeko kidea  
GARA, 2010.12.10

«Begano izatea da animalien erabilera baztertua eguneroko bizimodutik. Ni beganoa naiz eta, ondorioz, ez dut animaliarik jaten, ez haiengandik eratorritako produkturik ere. Horretaz gain, animalien larruarekin eta abar egindako jantzirik ez dut, eta erabiltzen ditudan xanpua, harrikoa egiteko xaboa eta abar ez dira animaliekin saiatutakoak (...)».

**Edurne ELIZONDO**  
Berako beganoa  
D.NOTICIAS, 2010.12.16

**11 galdera labur**

**Aurkeztu nor den Maria Do Amparo Sousa Santos...**

Emakume borrokalaria.  
**Txingetan, sokatiran... ikusi zaitugu. Zeinetan moldatzen zara hobekien?**

Sokatira aunitz gustatzen zait eta posible balitz segituko nuke, baina dena ezin da. Txingekin geldituko nintzateke, hori nik bakarrik egiten baitut eta nire esku dago.

**Sokatiran Nafarroako txapeldun izandakoa zara. Beti Gazterekin, baina txingekin txapela noizko?**

Badut gogoa eta uste dut Lesakari zor diodala, baina lortu arte saiatuko naiz.

**Aurten Lesakan ez da sokatiran talderik aurkeztu. Pena?**

Bai, baina hargitza zaila da. Taldeko zerbait da eta zaila da.

**Nola oroitzen duzu orain 13 urte Lesakara etorri zinen eguna?**

Ez dut oroitzapen onik, hagitza triste eta gaizki...

**Salvador de Bahia eta Lesaka. Zein da alde nagusia?**

Bi mundu desberdin dira, eta ezin dira konparatu. Lesaka Lesaka da, eta Salvador Salvador da. Han nagoenean han nago eta hemen nagoenean hemen.

**Zer botatzen duzu faltan?**

Nire familia.

**Zer eman dizu Lesakak?**

Dena. Ezin dut kexatu eta batez ere nire senarra, pertsona zoragarria da.

**Brasilgo inauteriak ala Lesakako zaku-zaharrak?**

Galdera zaila da hori! Ezin dut biekin gelditu?

**Portugesez bakarrik egitetik, orain lau hizkuntza jakitera pasatu zara...**

Bai, gaztelania, frantsesa eta euskara ere bai. Baina euskararekin benetan ongi moldatzen naizenean, orduan sentituko naiz gustura nire buruarekin.

**Euskalduna sentitzen al zara?**

Munduko bertze hiritar bat sentitzen naiz.



**Xanta SOUZA → Lesakan bizi den brasildarra**

# PSIKOBIDE PSIKOLOGIA ZENTRUA

TERAPIAK: Bakarkakoa - Bikote artekoa - Familiarra  
HELDUAK - HAURRAK - NERABEAK:

Era guztietako arazoak eta gaixotasunak tratatzen ditugu  
IKASKETA TEKNIKAK eskolan arazoak dituzten haurrentzat  
GURASOENTZAKO LAGUNTZA TALDEAK: Talde terapiak

*Lehenengo kontsulta dohainik, deitu eta informa zaituz!!*

Kolon Pasealekua, 64 behea • 20301 - IRUN  
Tel. 689 639 543 • [www.psikobide.com](http://www.psikobide.com)



**ttipi txartela**

ttipi-ttapa

Astier Iurretza Muluherria  
1.791.3648-2  
11/2010  
0002300

**DESKONTUAK  
ZOKKETAK  
ALDIZKARIA  
MUSUTRUK**

**ttipi-ttapa**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

# URTEBERRIKO TTIPI SASKIA

**SASKIAK DUENA:**  
Txartela Berru bi ibil munduan 2 kamiseta, Martiko lota, Ttanti zureko puzzlea (Kastolen Ekarteak),  
Fratsak DVD-a (Pinta, Paroxy eta Marmoloto), Kamiseta bat (Orin Ar), Astele Fratsak liburua  
(Kastolen Ekarteak), Kuku egiten ez zokien ontzia (Ereiri), Ttitan txote liburua (Igala), Berru ene  
habeak hastera (Ereiri), Anel Anel liburua (Igala), Nire biotzaren sorgina ote da? (Ereiri),  
Liburua (Ereiri), Pasa-lentzak liburua (Ereiri) eta Antzonen dorreak liburua (Ereiri)

**OSTIZ**  
%10 konponketeratan

**nafarpres**  
%10 liburu eta ikas materialetan  
testu liburuak eta bidaiak ezik

**JUAN J. PIKABEA**  
%10 gaitza marka batzutan ezik

**LIBURUAK**  
%10 iraupikutan

**SANSIÑENA**  
**CITROËN**  
%10 olio aldaketetan

532. aleko TTIPI SASKIAren irabazlea

**ZORIONAK**

Emilia IRIGOIEN AGERREBERE | AMAIUR

MENDIA → LORO, ZUBI ETA SARALEGIREN OMENEZ

# Larunbat honetan eginen da Santa Barbarako Igoeraren IV. edizioa

Ibilaldi  
gidatuaren  
ondotik,  
15:00etan  
abiatuko da  
lasterketa

## TTIPI-TTAPA

Aurten laugarren al-  
diz, Santa Barbarako  
Igoera eginen da larun-  
bat honetan, urtarrilak 8.  
Dagoeneko lau urte pa-  
satu dira Manttale Men-  
di Lasterketa Taldea,  
Agerra Mendi Taldea eta  
Gure Txokoa Elkarte  
igoera hau antolatzen ha-  
si zirela, Taillon mendian  
hil ziren Xabier Zubieta,  
Loro Pikabea eta Xabier  
Saralegiren omenez.  
Arratsalde ederra pres-  
tatu dute aurten ere, 6,5  
km.ko lasterketa egin eta  
ikusitako dutenentzat:

- 14:30ean: Santa Bar-  
barara ibilaldi gidatua.  
Kiroldigitik abiatuko da.
- 15:00etan binakako  
kronoigoera hasiko da.
- Lasterketaren ondotik,  
berendua eta zozketak  
eginen dira, eta ba-  
lilteke diapositiba ema-  
naldiren bat ere egitea.

## MARATOI ERDIA

Manttale Mendi Las-  
terketa Taldeak eman  
du Mendi Maratoi Erdia  
antolatzeko bidean le-  
hendabiziko urratsa:  
eguna zehaztea. Mara-  
toi Erdiaren zazpigarren  
edizioa apirilaren 17an  
eginen da.

## Langabezia datuak

Gauzajakina daazken  
urteotan langabeziak goi-  
ti egin duela. Baina zen-  
bakien bilakaera ere na-  
hiko adierazgarria izan  
da. Berako kasuan, erra-  
terako, 2006tik 2010era  
ia 90 langabe gehiago zi-  
ren. Azaroko datuei erre-  
paratuz, 2006an 94 lan-  
gabe zeuden Beran;  
2007an garai berean 93;  
2008an 112; 2009an 138  
eta 2010ean 183. Kopu-  
ru bertsuarekin hasi zen  
2010a Beran, 184 lan-  
gaberekin.

## Kontzertua

Lesakako Musika  
Bandak kontzertua es-  
kainiko du larunbat ho-  
netan, urtarrilak 8,  
20:00etan Kultur Etxe-  
an. Sarrera bertz euro-  
koa izanen da.



ARGAZKIA: HERRI LIBURUTEGIA

## Ipuin lehiaketako sariak banatu dira abenduaren 20an

Abenduaren 20an, Bortziritako Haur eta Gazteen Ipuin Lehiaketako sariak eman zituen Kultur Batzordeak liburutegian. Guztira 191 idazlan entregatu dira eta ondoko hauek izan dira saridunak mailaz maila: LHko 3. eta 4. mailan 70 ipuin aurkeztu ziren eta Mikel Irigoien Irtzoki (Labiaga), Lizar Elempuru Mitxelena (Ricardo Baroja) eta Ekhi Blanco Perez (Ricardo Baroja) izan ziren saridunak. 5. eta 6. mailakoek aurkeztutako 76 ipuinen artean Oihana Amoroso Abrego (Arantzako Herri Eskola), Alaitz Aranibar Iparragirre (Ricardo Baroja) eta Maialen Ruiz Alzuguren (Ricardo Baroja) saritu zituzten. DBHko 1. eta 2. mailakoek aurkeztutako 51 idazlanen artean Oihana Etxeberria Burlada (Arantzako Herri Eskola), Sara Almandoz Lukanbio (Arantzako Herri Eskola) eta Johanna Ramirez Romero (Lesaka - Toki Ona) izan ziren saridunak.



ARGAZKIA: LARUN HAIZPE

## Errekalde ostatua pintxo lehiaketako irabazle

Larun Haizpe merkatarien, ostalarien eta zerbitzu enpresen elkarteak lehen aldiz pintxo lehiaketa antolatu zuen abenduaren 4an eta 5eko asteburuan, Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Lixioia, Ikuilu, Bidaxka, Errekalde, Zubiondo, Auzoa eta Xuga ostatuek parte hartu zuten lehiaketan. Hori-  
en artean, Errekalde ostatuak aurkeztutako pintxoa izan zen onena: brik tulpia, barazkitxo, ondoz, ahate konfitatuaz eta labean egindako arraultzeaz be-  
tea, dena piña saltsaren gainean aurkeztua.

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 - BERA

**ERREKALDE**  
PLATEZ KONFIATUAK  
PINTXOAK  
KANTZINA  
TTAPA: 948 630 259 BERA

arropak - maindireak  
mantak - nordikoak  
toallak - kortinak  
alfonbrak  
**Goya**  
Albano, 4 - Tel: 948 630 083

**XITELI**  
Albano 1 - BERA  
Tel: 948 631 440

# LESAKA

UDALA → BESTAK ETA GARBIKETA KONTUAN HARTUZ

## 2010eko Sanferminetan 2009an baino %50 gehiago gastatu zela dio Oninek

63.000 euroko aurrekontutik 95.000 euroko gastura pasatu zela adierazi du

Aitor AROTZENA | LESAKA

2010eko Sanferminetako gastua «hasieran iragarritako 63.000 euroetatik 95.780 eurora pasatu dela salatu du Onin Udal Taldeak, %50eko igoera. Oninen datuen arabera, 2009an ere 63.000 euroko aurrekontua izan zen eta 64.637 gastatu ziren, karriken garbiketa barne. 2010ean, ordea, 61.125 gastatu ziren bestetako programan, baina garbiketaren bertze 34.655 euro. «Inguruko herrietan bestetako aurrekontua %30-40 jautsi den bitartean, hemen dirua soberan dagoela ematen du, herriaren dirua noski» dio Oninek bere idatzian.

Juan Fermin Mitxelena alkateak aipatu digu

nez, «datuak ez dira zuzenak, bi dirusailak, bestetako eta garbiketarena, aparte direlako».

### Sede elektronikoa

Udalak sede elektronikoa eta horrekin lotua dagoen erregistro elektronikoa indarrean jartzen hasi da, herritarrei zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa emateko legea betez. Udal langileak sede hori osatzen ari dira eta hori lortzen denean, Internetarako sarbidea duen edozeinek bere etxetik mugitu gabe egin ahal izanen ditu udal gestio guztiak. Azkenean, «Udalaren bulegoa Interneten» izanen da sede elektronikoa.

Sede elektronikoa martxan jartzeko, Espainiako Gobernuaren 8.300 euroko dirulaguntza izan da eta, hori osatzeko, Nafarroako Gobernuak bertze 8.200 euro ematea onartu du.



### Ba al zenekien...

**Beti Gazteko Preferente, jubenil eta kadete mailako futbol taldeek lehen postuan bukatu zutelarik urtea. Azken biak igoera fasea jokatuko dute aurten.**



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Olentzero eta jaiotza lehiaketa ikusgarriak 25 talde bildu zituen

Euriaren beldur, baina ateri joan zen Olentzero eta jaiotza lehiaketa. 25 talde atera ziren dena, 6 jaiotza lehiaketa eta 19 olentzerotan (9 ttikian kategorian eta bosna 11-15 eta 16 urtetik goitikoetan). Kategoria nagusian, azkeneko urteotan garaipena eraman duen argazkiko taldeak irabazi zuen oraingoan ere, bai olentzero lehiaketa, bai olentzero onenari emandako Esparza saria, baita herriko komertzianteez hobekien kantatzen zuenari emandako saria ere.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

### Klasikoak nagusitu dira Bortzirietako bertso txapelketan

Bortzirietako bertso eskolako 12. taldekako txapelketako finalean Klasikoak taldeak (Manolo Arozena, Juan Mari Lopez eta Joxe Juan Zubieta "Etxabe") bere esperientzia baliatu zuen eta saio eder baten ondoren Ortziako Santuk taldeari (Aitor Arotzena, Iban Garro eta Josu Sanjurjo) nagusitu zitzaion. Josu Sanjurjok, txapelketako bertso onenari Espidobaita elkarteak ematen dion Kotto Saria jaso zuen. Baina konpetizioa eta lehia baino gehiago, bertso festa handi bat izan zen abenduaren 10-11ko txapelketa, 36 bertsolari aritu baitziren.



MENDIA → IZEN BERRIA

## Zapingorri deituko da herriko mendi taldea

San Antonera  
eginen da  
lehenengo  
irteera

soak, bi olentzerorekin ibili ziren herrian barrena. Meza ondotik elizako arkupean kantuan aritzeko aukera izan zen luntxaren aitzinetik.

### Irune eta Itsaso

Etxalarko mendi taldeak urteak daramatza irteerak antolatzen. Orain arte bere izena isilpean bazuen ere, hemendik aitzinera Zapingorri izanen da.

Urte berriarekin batera, proiektu berriak martxan ditu mendi taldeak. Lorpen galtzerdi fabrikak galtzerdi gorriak diseinatu ditu taldearentzat. Hala, hurrengo irteeran, San Antonen, etxalartar mendizaleak galtzerdi gorriekin ikusiko ditugu.

### Olentzero

Abenduaren 24ean, nahiz eta eguraldi txarra izan, haur eta gura-

### Herriko Ostatuan mus txapelketa

Ohiturari segituz ortziral arratsetan, jendea Herriko Ostatuan biltzen da musean aritzeko. Urrian hasi zen mus txapelketa eta ekainera arte nahi duenak ortziralero izanen du musean aritzeko aukera. Irabazleak, gainera, afari eder bat izanen du sari.

### BORTZIRIETAKO TXAPELKETA

Azaroaren 26an Bortzrietako Gorriak antolatutako Mus Txapelketaren kanporaketa izan zen. Txapeldunak Arantzako Imanol Lukanbio eta Joseba Pikabea izan ziren; bigarrenak Mattin



UTZITAKO ARGAZKIAK

### 60 urte ezkondurik

Aldalurko Bordako Juan Maia eta Juana Ariztegik 60 urte bete dituzte ezkondurik azaroaren 15ean. Zorionak biei eta segi horrela urte aunitzez!



ARGAZKIA: AXUN MAIA

### Bortzrietako binakako X. pilota txapelketa

Herriko pilotariak fin ibili ziren Beran jokaturako Bortzrietako binakako pilota txapelketaren finalean. Koldo Bizente eta Markel Etxarte txapeldunak izan ziren; baita Iker Bizente eta Eneko Sanzberro ere. Bi bikoteek 22-13 irabazi zuten.

Sanzberro eta Unai Ota-  
zo; hirugarrenak Aitor  
Danboriena eta Beñat

Maia; eta laugarrenak  
Joseba Santesteban eta  
Jon Mikel Asensio. Lau

bikote hauek finala jo-  
katzekoak ziren Lesa-  
kan 25ean.

**USOA**  
nekazari  
kooperatiba  
ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

**Javier  
Manterola**  
Tehaiko instalatzailea  
Iturgintza - gasa  
kalifikazioa  
Tfnoa: 629449602 - BERA

**sarobe**  
geoteknia olinpikoa  
Ez da enplegatu 25 baino  
14700 berri (javarrak)  
1948 630899  
www.sarobe.net

**MERKATU TTIKIA**  
Aldizkaria  
+  
internet  
+  
telebista  
**8€**  
T. 948 635 458  
www.ttipi.net

## IGANTZI

LANA → DEIALDI BERRIA

# Biltokiren egoitza garbitzeko lanpostu deialdia egin du elkarteak

Eskaintzak urtarilaren 14rako aurkeztu behar dira

### TIPI-TTAPA

Biltoki elkartearen egoitzako garbiketaz arduratuko den norbait kontratatzeko deialdia egin dute aurten ere Biltokitik. Eskaintzak aurkezteko epea urtarilaren 14an, ortziralarekin, bukatuko da eta interesatuek elkarte buzoian gutunazal itxi batean utzi beharko dute

euren proposamena. Lanaldiak, berriz, otsailaren 1ean hasita 2012ko urtarilaren 31ra arte iraunen du. Informazio gehiago nahi izanez gero, Biltokiko tabloian edo 699 107729 telefonora deituta eskura daiteke.

Elkarteak urtero urtero egiten du lanpostu deialdi hau eta azken urtean M<sup>a</sup> Jose Zubeldiaren esku egon da ardua.

### Dirulaguntzak

Udalak hainbat dirulaguntza onartu zituen



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

### Urte bukaerako emanaldia eskaini zuen Abesbatzak

Abenduaren 18ko meza kantatzeaz gain, txistularien emanaldiaren ondotik kontzertua eskaini zuen Igantziko Abesbatzak, Isabel Lacar zuzendariaren gidaritzapean. Urtea agurtzeko modu ederra!

joan den urte hondarean: abenduko Kultur Egunen antolaketan laguntzeko 743,40 euro onartu zituen (abenduarien 5eko antzerkiaren gastua gutti goitibeheiti); Baratzondo jubilatu- en elkartearen mus eta partxis lehiaketak anto-

latzeko 135 euro baimendu zituen; eta Bortzirietako Pilota Elkarteari 275 euro ematea onartu zuen.

Aldiz, eskolak eta Guraso Elkarteak eskolaz kanpoko kirol jarduerarako egindako 1.000 euroko dirulaguntza es-

kaera ez du onartu. Honela dio udal aktak: «kontuan hartuz ez dela aurreikusitako horretarako partidarik eta Udaleko egoera ekonomikoa, aho batez erabaki dute eskola eta Guraso Elkarteari dirulaguntzarik ez ematea».

## EUSKARA

NAFARROA → EUSKARAREN LEGEAREN 24. URTEURRENA

# Nafarroan euskararen ofizialtasuna eskatu dute alderdiek

Ezker Abertzaleak eta NaBaik hitz egin dute

### TIPI-TTAPA | IRUÑEA

Euskararen Legearen 24. urteurrenaren harira, agerraldia egin zuen ezker abertzaleak joan den hilabetearen, ofizialtasunaren bidean hizkuntz politika berriaren beharra aldarrika-

tzeko. Han izan ziren Xanti Kiroga bozeramailea eta Leitza eta Bera-ko alkateak, Xabier Zabalo eta Josu Irtzoki. 24 urteotan «nafar guztion hizkuntz eskubideak urratuak» izan direla salatu zuten, eta Nafarroako Gobernuari «lege honetan euskarazokoratzeko eta herritar- rrek baztertzeko bidea aurkitu duela» leporatu zion. Bertzeak bertze, zonifikazioaren bidez,



UTZITAKO ARGAZKIA

Abenduaren 15ean egin zuen agerraldia ezker abertzaleak. Ezkerretik eskuinera, Irtzoki, Kiroga eta Zabalo.

herritarren hizkuntz eskubideak mailakatu eta ukatu direla ere gaineratu zuen. Ofizialtasuna eskatu zuen, baita belaunaldi berrien euskalduntasuna bermatzeko ere.

NaBaik, bere aldetik, Euskararen Legea berri- tzeke proposamena egin du Nafarroako Legebiltzarrean. Proposa- men horrek gizartearen beharrei erantzunen die- la adierazi dute, eta hel-

burua Nafarroan euska- ra ofiziala izatea omen da. Euskararen erabi- lera indartzeko baliabi- deak eta administrazioa- ren egitekoa ere ageri dira, bertzeak bertze, ai- patu proposamenean.

EGUBERRIAK → ERREGE EGUNEKO BESTA

# Mendi mutilen bestan Esteban Irigoien apez egondakoa omenduko da

Aizkolariak, bertsolariak eta trikitilariak ere izanen dira

## Nerea ALTZURI

Ortzegun honetan, iaz bezala Errege eguneko besta izanen da Aterperen eskutik. Orain ez bada mendi mutilik ere, garai batean urte guzian Frantzialdean mendian aritzen zirenak Eguberrietarako etxera etortzen ziren eta urtariraren 6an beuren eguna antolatzen hasi ziren. Urte batzuek galduegona egon ondotik, Aterpekoek berreskuratu zuten. Iaz ospakizun eder-rra izan zen: argazki zaharren erakusketa bat tartean, aizkolarien erakustaldia eta trikitilariak alaituta bertso bazkaria egin ziren.

Aurten ere, aizkolarien saioa izanen da frontoian. Ondotik trikitilariak girotuta, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin bazkaria izanen da Aterpen. Tartean, Esteban Irigoien –On Esteban herritarrentzat– mendi mutilen garai hartan herrian apez egondakoa-ri, omenaldi tiki bat eginen diote. Maiz mendian lanean aritzen ziren herriko mutilek Estebanen bisita jasotzen zuten; eta gisa berean, bertze gauza aunitzetan bezala, aunitz laguntzen zien On Estebanek. Egun honetan etorriko dela errana du. Berriz ere, oroitzapen

eta bizipen haundiko eguna izanen da.

## Haur Txokoa

Bortziritako gizarte zerbitzuaren eskutik eta laugarren aldiz, Lana, familia eta bitzta pertsonala uztartzeko Itun Mankomunitatearen barruan, Haurrentzako txokoa edo ludoteka zerbitzua antolatu da herrian eguberrietako opor hauetan. Abenduaren 23an hasi da eta ilbeltzaren 7ra bitarte, lau besta egun kenduta, guzira bederatziguneguneguz goizeko 10etatik ordu bitartean zerbitzua martxan da. Haurrek eskolik ez izatean, denbora librean elkarrekin egoteko aukera izanen dute, elkartasuna eta berdintasuna ardatz hartuz, Era berean, guratsoentzat ere aukera polita da heziketarekin bat eginez, beurek ere aisialdiaz goza dezaten.

## Xorroxin irratia eskolatik

Joan den urtean ez bezala, oraingoan Xorroxin Irratiko unitate ibiltaria eskolara etorriko da. Ilbeltzaren 18tik 21era Eskola Irratia izanen da eta 10:00etatik 12:00etara irratsaioa egingen dute.

## Zuhaitzaren Eguna

Ohiturari segituz, ilbeltzaren 26rako Zuhaitzaren Eguna antolatu dute eskolan eta neska-mutikoak zuhaitzak landatzera joanen dira.



ARGAZKIA: NEREA ALTZURI

## Olentzero eta Mari Dominginen ondotik, hiru errege magoak

Olentzeroa berriz ere mendira joana da hurrengo urterarte agurtuz. Gaztetxoek batez ere besoak zabalik hartu zuten ikazkina. Eguraldi hagitz kaxkarra izanagatik ere, Eguberri bezperan, arratsaldean ailegatu zen herrira... Ohiko itzulia ez zen egin, aroa ez baitzen batere lagun izan. Hala ere, gorapean eguberrietako kantuak kantatuz saio ederra egin zen, Gregorio Mitxelenak eskusoi-nuarekin lagunduta. Aterune bat probetuz herrian barna itzulixka bat egin zen olentzeroekin. Seiak baino lehenxeago Olentzeroa ailegatu zen eta heldu eta gaztetxoek lerroan jarriz, berekin solastu eta, gutunak eta muxuak emateko aukera izan zuten. Bitartean, gaztainak, txistorra pintxoak... merendua prestatu zuten Udaleko eta Guratso elkarteko ordezkariak. Olentzerori harrera beroa eginez, kontent pasa genuen arratsaldea. Goizez hala ere, herriko trikitilariak alaituta, aulki dantza saioa izan zen frontoian. Olentzeroa aipatu dugu... baina aurten, bere neskalaguna den Mari Dominginen bisita izan da eskolan. Berak ere, mezu aunitz jaso zituen gure herriko tikiengandik. Ez omen zen esku hutsik etorri: opari aunitz ekarri omen zituen.

**LEGARRA**

- EGUNKARIAK
- ALDIZKARIAK
- LIBURUAK
- OPARIAK
- TABAKOA
- FOTOKOPIAK
- ENKUADERNAZIOAK
- PLASTIFIKAZIOAK
- FAX PUBLIKOA

**TESTU LIBURUAK ENKARGUZ**

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

**ERROTAZAR**

**harategia**

Bertako produktua

Etegara, 3 - BERA  
Teli/Faxa: 948 630 088

# SUNBILLA

EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK

## Dena prest dago errege magoei ongietorria egiteko

Meza ondotik ailegatuko dira herrira eta eliz atarira joanen dira

harra gurutzatu eta eliz atarira joanen dira. Han izanen da Jaiotza Biziduna ere, erregeen eta mezatik ateratzen den jendearen esperoan. Aipatu, Itturburu Abesbatza erregeen zain egoten dela zuzi edo tortxekin eta handik kantuz egiten duela elizarako bidea.

Bere garaian, lauzpabortz gazte eliz ataritik pasatzen omen ziren ezkila ttiki batzuekin erregeen etorrera iragarritz. Lerro hauek idazterakoan oraindik zehaztu gabea baldin bazen ere, ohitura hori berreskuratzeko asmoa bazuten batzuek.

### Itxaso ARRIETA

Olentzeroren ondotik, hiru errege magoen txanda izaten gurean, eta aurten ere horrela izanen da. Asteazken honetan, urtarrilak 5, Errege egunaren bezperan, Meltxor, Gaspar eta Baltasar etorriko dira.

Errepidez ailegatuko dira ilunabar alderako herrira, eta Itturburun barna, zubi za-



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Olentzerori ongietorria eskaini zieten neska-mutikoeak

Herriko neska-mutikoeak ongietorria eskaini zioten Olentzerori abenduaren 24an. Biharamonean, berriz, herriko gazteak eskean ibili ziren etxez etxe, Eguberrieta-ko ohiturak behar bezala betez.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

### Giro ezin hobea kantu zaharren afarian

46 lagun elkartu ziren abenduaren 18an Ulibeltzak Elkartean egin zen kantu zaharren afarian, Joxe Angel akordeoilariaren laguntzarekin. Giroa hain izan zen ona, jendeak ez zuela presarik izan etxera joateko eta goizaldeko 4ak bitarte hantxe gelditu zen jendea kantari. Hurrengo urtean errepikatze moduko saioa izan zela adierazi digute Ulibeltzak Elkarteko zuzendaritza batzordetik.

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

**IBARROLA**  
Haurrendako arropa  
0-14 urte  
Perrakia kalea 6 - Donostia  
948 450 453

**Urtarrilaren 7tik aurrera**  
**MERKEALDIA**  
**50% deskontua**

**zalain**  
JATELEA - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g  
31780 Bera  
T. 948 631 106  
w. www.zalain.com

**zalain**



PILOTA → ERREKA KIROL ELKARTEAK ANTOLATUTA

## Eskuz binakako IX. pilota txapelketa igande honetan hasiko da

Zazpi  
kategoriatan  
192 bikote  
apuntatu dira

### TTIPI-TTAPA

Igande honetan, hilak 9, emanen zaio hasiera aurten bederatzigarren urtez antolatu den eskuz binakako Malerrekako Pilota Txapelketari. Zazpi mailatan, 192 bikotek parte hartuko dute.

**Benjaminetan** 24 bikote ariko dira eta asteburu honetan hasita, igande goizetan Legasako frontoian jokatuko dira partidak. **Alebinetan** 32 bikote ariko dira eta asteburu honetan hasita, igande goizetan Iru-ritan izanen dira partidak. **Infantiletan, kadeteetan eta jubenetan** ere bertez 32na bikote ariko dira. Igande honetan hasiko dira partidak eta infantilenak Beran, kadeteenak Lesakan eta jubenetan Donezteben jokatuko dira igande goizetan.

**22 urtez azpiko eta elite** mailakoen partidak urtarrilaren 12an hasita, asteazkenetan jokatuco dira, arratsaldez, Beran 22 urtez beheitikoanak eta Donezteben elitekoen-

ak. 22 urtez azpikoetan 24 bikote ariko dira eta 16 elite mailakoetan.

Finalak otsailaren 26an jokatuco dira Doneztebeko pilotalekuan, goiz eta arratsaldez. Errekako bigarren mailako pilota txapelketaren finalak otsailaren 25ean izanen dira.

### Haur Eskola

Hainbat izan dira 0-3 urte bitartekoena den Askin Haur Eskolan lanean aritzeko izena eman dutenak. Sukaldaria, bi haur hezitzaile, jantokiko laguntzailea eta garbitzailea kontratatu nahi ditu Udalak eta denak ere oposizio bidez aukeratuco dira.

Jantokiko laguntzaile izateko 14 lagunek eman dute izena, eta horietatik 11 onartu ditu Udalak, eta gainerako hiruk gibelerara bota dira. Garbitzaile posturako 19 lagun apuntatu dira, eta 14 onartu eta 5 baztertu dira. Hezitzaileak kontratatze deialdia izan da erantzun haundiena jaso duena, 36 lagunek eman baitute izena eta horietatik 33k segituko dute probak egiten aitzinera. Sukaldari lane-rako 18 pertsona apuntatu dira, eta 16 onartu.



ARGAZKIA: ERREKA

### Errekaren Mendi Eguna arrakastatsua izan zen

Mendiaren Egun borobila ospatu zuen abenduaren 18an Erreka elkarteak. Egia da goizeko mendi ateraldian, hotzak izututa edo, zortzi lagun bakarrik izan zirela. Baina elurretan ibildaldi ederra osatu zuten Leurtzako zirkoan barrena, bixta zoragarriekin gozatuz. Izan ere egunsenti garbia izan zuten mendizaleek, haitzerik gabe eta postaleko paisaia txurien barna egin zuten ibilbidea. Kasinoan egindako bazkarian 22 lagun bildu ziren eta Juan Vallejo eskainitako *Broad Peak 2010* emanaldia zoragarria izan zen. Bere ikusentzuneokak, zinema kasik bete egin zuten ikusleen gogoia asebetu zuten. Ondotik, lasai ederrean aritu zen solasean Juan Vallejo, galderei presarik gabe eta umil erantzunez.



ARGAZKIA: ONDIKOL

### Dolores Sarratea Santa Luzia eguneko omendua

Ohiturari segituz, Santa Luzia eguna ospatu zen abenduaren 13an eta urtero bezala, jostungintzan aritutako pertsona bat omendu zuen Udalak, Zilarrezko Titarea emanez. Aurten, Maria Dolores Sarrateak jaso du ohore hori, baita Juana Muñoz eta Ana Etxeberria zinegotziek emandako lore-sorta ere. Dena dela, *Lollok* garbi utzi nahi izan zuen sari hori bere ahizpa Mercedesentzat ere bazela, «bera izan baitzen jostuna eta ni laguntzailea bertzerik ez», adierazi zuen hunkiturik. Argazkian, Jaione, Nekane eta Fran Ezkurra bere seme-alabekin ageri da Dolores. Gainerakoan, omenaldia eta eskulangileen erakusketa antolatu zituzten Udalak eta Cederna-Garalurrek, 1999an ospakizun hau berreskuratzen hasi zirenetik urtero egin duten bezala. Eskulangileak elizatarian jarri zituzten beraien lanak, Zubietako Joxepa Loiarte eta konpainiaren taloak atzendu gabe. Kibbi enpresaren kiwiak ere salgai jarri zituzten. **Urtez urte, hauek izan dira Zilarrezko Titarea jaso dutenak:** Maria Eraso (1999); Patxi Astiz (2000, gizaseme bakarra); Mari Carmen Elizalde (2001); Virtudes Etxebeste (2002); Pepita Apeztegia (2003); Pakita Andiarrena (2004); Mariela Olaizola (2005); Angeles Buenetxea (2006); Maria Teresa Mindegia (2007); Loli Ostolaza (2008); Mari Cruz Arregi (2009) eta Maria Dolores eta Mercedes Sarratea (2010).

**BERRANDONEA, I.L.**  
FRUTUEN VERDURAREN  
FRIGORIFIKAZIOA  
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152  
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • 31780 BERA

## ITUREN

BERTSOLARITZA → BORTZIRIETAKO TXAPELKETA

# Gorosterrazu anaiek eta Alazne Untxalok irabazi dute Malerrekako taldekako bertsolari txapelketa

Bortzirietako lehiara sailkatu ziren, baina Egoitzen ordeztu Ander Fuentes aritu zen

## Arkaitz MINDEGIA

Bertsotan ederki moldatzen direnak ere badira herrian. Abenduaren 3an, adibidez, Malerrekako taldekako bigarren txapelketa jokatu zen Donezteben eta Egoitz eta Iker Gorosterrazu anaiek eta Alazne Untxalok osatutako *Iturengo taldea* izan zen txapeldun.

Malerrekakoa irabazita lortu zuten Bortzirietako taldekako XII. txapelketarako txartela. Abenduaren 10ean, Berako Espidobaitan jo-

katu zen saioan aritu ziren. Herritarren taldean aldaketa tiki bat izan zen, Egoitz Gorosterrazuren ordeztu, Zubietako Ander Fuentes aritu baitzen. Lehendabiziko saioa *Beratarrak* taldearen aurka egin zuten eta garaipena lortuz finalerdietara pasatu ziren. Finalerdiak Lesakan egin zituzten, *Klasikoak* taldearen aurka, baina Bortzirietako txapeldunen aitzinean, ez zuten irabazterik lortu. Zorionak egindako lanagatik!

## Eskolako zozketa

Ikasleek etxetik eramandako produktuekin osatutako bi zare eder zozketatu zituen eskolako Guraso Elkarateak abenduaren 22an, azken urteetako ohitura betez.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

## Olentzerori ongi etorri beroa egin zitzaion!

Herri guzietan bezala, Olentzerok eman zien hasiera Eguberrietako ospakizunei. Abenduaren 24an, ilunabarrean ailegatu zen Iturenera Olentzero joaldunen laguntzarekin eta herritarrek aurrez-aurre agurtzeko aukera izan zuten. Aurtitzen, Oihan Goizueta izan zen Olentzero ttikia.



ARGAZKIA: GEMA SANT SINENA

## Eguberrietako ekitaldiak eskolan

Goizean hasi eta eguerdira bitarte azken aldiaren ikasitako kanta, dantza eta ko-reografiak eskaini zituzten eskolako ikasleek Eguberrietako oporrak hartu aitzineko azken egunean, abenduaren 22an.





**Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua**  
**Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. - Bararta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tfnoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 560




**GARRAIOAK, ESKABAZIOAK, KONTENEDOREEN ZERBITZUAK**

Kontenedoreak: 5 m<sup>3</sup> - 7m<sup>3</sup> - 12m<sup>3</sup> - 30m<sup>3</sup>

**Mota guztietako hondakinak biltzen dira**

Tel/Fax: 948 45 13 89  
C/ Ameztia, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)

OSPAKIZUNAK → ASTEAZKENEAN

## Berriz ere joare soinuak nagusituko dira Errege bezperan

Goizean hurrek jantziko dituzte joareak eta gauean gazte eta helduek

### Fermin ETXEKOLONEA

Inauteriak ailegatu aurretik, joaldunen hitzordu nagusia Errege bezperan izaten da eta aurten ere horrela izanen da. Asteazken honetan, urtarrilak 5, joare soinuak somatuko dira goizean goizetik biharamunekoa goizaldera bitarte.

Argitu orduko joareak jantziko dituztenak neska-mutikoak izanen dira. Etxez-etxe eta baserri batzuetan barna egingen dute itzulia, eta egindako bisita eskertzeko, dirua, goxokiak edo gosaria emanen dizkie jendeak.

Arratsaldean joare hots gutxi somatu ohi da herrian. Gainera, hiru errege magoei ongietorria egitera Doneztebera joaten dira Zubie-

tako joaldunak. Urte saila bada urtarrilaren 5eko arratsaldean Donezteben hiru erregeekin buelta ematen dutela.

Gauerako, ordea, herrira bueltatuko dira, eta kuadrillan edo etxean afaldu ondotik, berriz jantziko dituzte joareak. Aldi honetan, hurreile-

kukoa hartuz, gazte eta helduak ibiliko dira joareekin. Lehenik herrian barna egingen dute itzulia, eta ondotik, Aurtizera eta gero Iturenerra joanen dira. Atzera berriz Zubietara etorriko dira eta goizaldeko 06:00 edo 07:00 aldera bitarte ez dituzte ken-

duko joareak. Arrakasta haundiko eguna izaten da, edozeinek jantzi baititzake joareak eta azken urteotan 50 bat lagun bildu izan dira.

### Bake-epailea

Ikazpeko Sebastian Indakoetxeak segituko du bake-epailearen kar-

guan. Deialdian inor ere aurkeztu ez zela-eta, Udalak azken urteotan lan horretan aritu den Sebastiani egin zion proposamena eta honen onartu egin du. Berra izanen da beste lau urtez bake-epailea.

### Hiru herritar Mendi Abesbatzan

Errandoneko Koteto Juanikorena, Etxekeneko Ruth Etxebeste eta Eguzkiloreko Itziar Smith dira Doneztebeko Mendi Abesbatzan parte hartzen duten hiru abeslari herritarrik. Urte osoan hainbat entsegu egiten dituzte, baina baita lauzpabost irteera ere. Abenduaren 17an abesbatzak eskaini zuen Eguberrietako saio berezian ere kantatu zuten.

### 'Ni Bidasoa' dokumentala

Joan den hilabetean aurkeztu zen Bidasoa ibaiari buruzko *Ni Bidasoa* dokumentalean herritar batek parte hartu du, Juainas Paul Arzakek, hain zuzen.



ARGAZKIA: FERMIN ETXEKOLONEA

### Olentzerok egin du urteroko bisita

Olentzeroren etorrera girotzeko Eguberrietako kantak abesten ibili ziren neska-mutikoak herrian eta gustura hartu zituzten jendeak emandako goxoki, turrroi eta dirua. Jaiotza biziduna ere tartean izan zen. Kantuan aritu ondotik etorri zen Olentzero astoarekin menditik. Ongietorriaren ondotik, herriko estalpe-bera joan eta opariak banatu zizkien hurrei.

**APARAN, S.A.**  
**BRIKOLAJA eta ZURAK**

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarniak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**BEINTZAKO OSTATUA**  
948 45 00 14  
ORBELA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN  
**facebook**  
www.facebook.com/ttipi.ttapa

**J.RAMOS**  
zolak akutzilatuta eta barnizatzen ditut  
Sakelekoa: 637 836 023 - LESAKA

## ERATSUN

OSPAKIZUNAK → MOZORRO BESTA OSPATZEN LEHENBIZIKOETAKOAK

# Urtarrilaren 14tik 16ra ospatuko dira inauteriak

Otorduz otordu joanen dira ospakizunak, larunbateko bertso afaria barne

## TTIPI-TTAPA

Inauteriao ospatuko dira Eratsunen urtarrilaren 14tik 16rako asteburuan. Ohiturak agintzen duen moduan, otorduz otordu mugituko da besta giroa, etxez etxe egiten den eskearekin atzendu gabe. Hau idazterakoan, erabat zehaztu gabe dago berez programazio handien beharrik izaten duten ospakizun hauen egitaraua, baina ostiralean, afaria izanen da, giroan sartzen hasiteko.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ttikienek eta gazteek gustora hartzen dituzte inauterietako ospakizunak.

Larunbatean bazkaria egingen da eta arratsuan bertso afaria, Aitor Mendiluze eta An-

gel Mari Peñagarikano bertsolariekin. Modesto akordeolariarekin ere dantzaldia izanen da.


Aurtengo inauteriak akitzeko, igandean bazkaria izanen da akordeolariarekin.

## GIZARTEA

olentzero.net  
webgunea  
martxan jarri  
berri dute

## TTIPI-TTAPA

Abenduaren 22an, aurkeztu zen Udalbidereen Iruñeko egoitzan *olentzero.net*, Olentzeroren Lagunen Elkartek bultzariko ekimena, euskal Eguberrietan "pipa hortzean duela" agertzen den pertsonaia sustatu eta suspertzen laguntzeko helburuz. Horretarako webguneak jokoa proposatzen ditu, argazki eta bideoak partekatzeko aukera ematen du, berriak eskaintzen ditu eta Olentzerok bisitatzen dituen herri eta tokien zerrenda ere ematen du, tartean Euskal Herrikoak zein euskal diasporako datu eta ekarpenak. Webgunea euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez irakur daiteke.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza 

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea  
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN  
c.andueza@euskalnet.net

OSPAKIZUNAK → AILEGATU DA IKAZKINA

## Aspaldiko partez Olentzero etorri da herrira

Gaztetxo batzuk suzirikin lagundu zioten bidean

**Joseba URROZ**

Aspaldiko partez, aurten Olentzero bera etorri zaigu herrira Jesus jaio denaren berri ekartzera eta haurrei eskuetara opariak ematera.

Eguberri bezperako arratsaldean, herriko haur eta gaztetxoak, etxez-etxe ibili ziren kantari, trikitiaz lagundurik. Ondotik, ostatuan txokolata beroa hartu zuten, Olentzero herri-  
ra ailegatu bitartean. Ilu-

nabarreko 18:30 aldera agertu zen, errota alde-  
tik, gaztetxo batzuk su-  
ziriekin laguntzen zio-  
ela, herriko plaza aldera,  
opariak bizkarrean zi-  
tuela.

Karriketako argiak itzaliak, eta elizako ezki-  
lak ere dandan ibili zi-  
ren, harrera osatzeko.  
Gero, frontoi estalian,  
aurrei opariak banatu  
zizkion, ohi den bezala,  
batzuk gustora hurbil-  
du ziren beregana, bai-  
na bertze batzuk negar  
ere egin zuten.

Gustatu omen zitza-  
ion gure herrira ager-  
tzea, eta ongi hartu ge-  
nuelako, datorren urte-  
an ere gustora etorriko  
dela erran zuen.



ARGAZKIAK: JOSEBA URROZ

Haurrek (eta gurasoek) ilusioz esperatu zuten Olentzeroren etorrera eta urte osoan txin-  
txoak izan direla erran eta opariak eskatu ondotik, berekin argazki batzuk atera zituzten.



**ELGORRIAGA**  
BALNEARIO - BAINUETXE

Errotaldeia z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa) | T. 948 45 60 45



*urtarrilaren 20an berriz ere zuekin izango gara*

**TRATAMENTU ETA BONU BERRIAK KONTSULTATU**  
**URTE BERRIA** MODU DESBERDIN BATEAN HASI EZAZU,  
HASI URTEA OSASUNAREKIN,  
AURTEN EZIN DUZU GALDU.  
**ZURE ZAIN GAUDE**

[www.balnearioelgorriaga.com](http://www.balnearioelgorriaga.com)



# NARBARTE

EGUBERRIAK → HASI DA 2011

## Hutsik egin gabe jautsi da Olentzero menditik

Horrez gain, Eguberri egunean jaiotza biziduna egin zen

### TTIPI-TTAPA

Zorionez, aurten ere Eguberriak ailegatu zaizkigu, eta pasatu ere bai dagoeneko. Hotza handiarekin, baina urtero bezala, hutsik egin gabe, Olentzero menditik jautsi zitzaigun. Ongi portatu direnei eta ez hain ongi portatu direnei ere, opariak ekarri zizkien. Bere zakua beterik zuela etorri zen, baina ederki hustuta eramán zuen.

### JAIOTZA BIZIDUNA

Eguberri egunean, elizan, herriko boluntario talde batek antzetzutako jaiotza biziduna ikusteko aukera izan genuen.

### Ibilgailuen

**azterketa teknikoak**  
Nekazaritzarako ibil-



UTZITAKO ARGAZIAK

Olentzeroren bisitaren ondotik, Eguberri egunean, jaiotza biziduna irudikatu zuen herritar talde batek.

gailuen eta ziklomoto-  
rren azterketa teknikoak

urtarrilaren 31n, aste-  
lehenarekin, eginen da

herriko plazan. Goizez  
izanen da.

### GIZARTEA

Dominikar Errepublika, Ekuatore Ginea eta Ginea Bissauko haurrak udan hartzeko deialdia

### TTIPI-TTAPA

Dominikar Errepublika, Ekuatore Ginea eta Ginea Bissauko neska-mutikoak udan etxean hartzeko deia egin du Amamayte Nafarroako Gobernuak Kanpoko Erakundeak. 2004an sortu zenetik, erakundearen bidez, Ekuatore Gineako haurrak ekarri izan dira, baina orain Dominikar Errepublika eta Ginea Bissautik ere ekarri nahi dira. Izan ere, herrialde bat edo bertzea izan, umeak behar haundiak dituzte, eta garrantzitsua da umei bizi-maila hobea eskaintzea. Haurrak ekain hondarrean etortzen dira eta irail hasieran itzuli sorterrira. Ekuatore Ginean, aberastasunak gutti batzuen esku daude, Dominikar Errepublika turismoagatik ezaguna bada ere, bertako jendea txaboletan bizi da eta Ginea Bissau berez da herrialde pobrea. Baldintza horietan bizi diren neska-mutikoei eman nahi die Amamayte GKEk honat etortzeko aukera eta interesatuek 634 401 978ra deitu behar dute. Herrialde horietako haurrak edo baldintza kaxkarretan bizi diren bertze tokietakoak apadrinatzeko aukera ere eskaintzen du GKE honek.

Eskalerak igotzea... ez da oztopol

**Behetik**

igogailu bereziak  
auki bereziak...

Aforgo-biki. 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888  
www.behetik.com

**PRIM, c.b.**  
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaiak
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA  
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUJAN

GIZARTEA → BILERA DEIALDIA

# Kuku elkartearen batzarra egingen da larunbat honetan

Bertzeak bertze, junta berriaren aukeraketa eta 2010ko kontuak aztertuko dira

## TTIPI-TTAPA

Kuku elkartetik bazkide guztientzat deialdia luzatu da larunbat honetan, urtarrilak 8, egingen den bilerarako. Lehendabiziko deialdia 15:00etan da eta bigarrena ordu erdi beranduago izanen da, 15:30ean.

Hainbat gai jorratuko dira aipatutako bileran; hala nola, 2010ko kontuen aurkezpena egingen da, junta berriaren aukeraketa ere

bai, 2011ko elkarteko garbiketa lanen deialdia ere orduan erabakiko da, Kuku elkartearen 25. urteurrenez ere solastuko da eta akitzeko, galderak eta azalpenak egingen dira.

## ELKARTEKO GARBIKETA LANEN ENKANTEA

Aurreko urtetan bezala, Kuku elkartearen garbiketa lanen enkantea ere egitekoa da. Eskaintzak aurkezteko epea akitua da dagoneko, interesatuek beren eskaintza gutunazal itxi batean sartu eta elkartearen barreneko buzoian utzi behar izan baitzituzten, 2010ko abenduaren 31a baino lehen.

Garbiketaren ardurak eskaintzarik merkeenari emanen zaio.



UTZITAKO ARGAZKIA

## Olentzeroren bisita

Eguberriekin batera, negua, elurra, hotza eta nola ez, mendian bizi den gure ikazkin maitea, Olentzero, etorri ziren. Legasara, bertze hainbat herritara bezala, abenduaren 24an etorri zen eta ongietorria emateko hainbat gauza prestatu ziren. Arratsaldean, eskola atarian elkartu eta txistularien soinuekin Olentzeroren panpina herrian barrena ibili zuten. Ondotik, berriz, merienda goxoa eskaini zen frontoian. Ilundutakoan, eta bertze herrietako buelta egin eta gero, Olentzero bere astoarekin menditik jaitsi zen hainbat sorpresa ekartzera. Guk ongi zaindu, merendua eman eta hurrengo urtera arte agurtu genuen.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA  
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA

# GOIZUETA

GIZARTEA → NAFARROAKO HONDAKINEN PLAN INTEGRALA

## Gobernuak aurreikusitako erraustegiaren aurkako mozioa onartu du Udalak

Ekainean hasiko dira Zumarreneko zabortegia inpermeabilizatzeko lanak

**Esteban AROTZENA**

Nafarroako Gobernuak bultzatzen duen PIGNR-ek (Nafarroako Hondakinen Plan Integrala) dioenez, errausteketa erabiliko da hondakinak deuseztatzeko metodo bezala gure herrialdean. Horren ondorioa, jakina, erraustegi bat eraikitzea izanen da, eta hau ez du begi onez ikusten gure Udalak, sistema honek «osasunerako eta ingurumenerako arriskuak ekarriko dituelako», besteak beste.

**ANTZUZELAS S.L.**  
Tel: 948 631 317  
HARRI NATURALA  
Abertzaletza eta Lantzerak  
ZINBARRAK ABERRIAK ZOLAK  
Inongo erropak BEHA

**DATUA**

850.000

**EURO**  
kostako da Zumarreneko zabortegiaren inpermeabilizazio lana. %20 Goizueta eta Aranoren artean ordainduko da.

Iruñeak ez du erabaki oraindik erraustegiaren kokapena, baina hondakinen plana azaltzeko egindako bilertan argi eta garbi jo du alternatiba horren alde. Zenbait hizlari eta teknikariek aurreikusitako beste hainbat aukera baztertu ditu gainera, atez ateko bilketa, esate baterako. Honen aurrean, proposamen guztiak ikertuko dituen eztabaida «erreal eta serioa» exijitu dio Goizueta Nafarroako Gobernuari, hainbat udal eta mankomunitatek ere gai honi buruz erabaki ahal izatea aldarrikatzen duten bitartean.

**ZUMARRENEKO ZABORTEGIA**

Mendialdea Mankomunitatea sortu eta herriko eta Aranoko zaborrak kanpora eramaten hasi zirenetik obretako



ARGAZKIA: EIDER LOIARTE

**Abesbatzaren emanaldi ederra urtea bukatzeko**

27 haurrek eta 40 helduk osatutako koruak bete egin zuen eliza abenduaren 18ko emanaldian eta kontzertu ederra eskaini zuen.

eskonbroak besterik ez dira botatzen Zumarreneko zabortegira. Era horretako zakartegien itxiera eta ondorengo errehabilitazioaren agindua eman zuen Europak aspaldi xamar eta gureari ere ailegatu zaio horretarako txanda.

Dagoeneko sinatuta dagoen akordioaren arabera, 850.000 euroko kostua izanen du Zumarreneko inpermeabilizazio lanak eta aurtengo ekainean ekinen diote lehenengo faseari (510.000 euro). Bigarren fasea, berriz, Toki Azpiegituren Hirurteko Planaren barrenean sartuko

**HAUTSAK KENTZEN...**

1849ko garagarrilaren 24an Doña Juana Fermina de Minondoren baratza erostea erabaki zuten Udalak eta Beintanak kanposantua eraikitzeko bertan. Aldizkari ofizialean argitaratua zen ordurako polizia buruaren txostena «inola aitzakiarik gabe berehala herrian kanposantua eraikitzeko agindua». Handik urte batzuetara, 1903an fetuak eta katolikoak ez zirenak lurperatzeko kanposantua egokitzeo aurrekontua eskatzea erabaki zuen Udalak.

da. Edozein kasutan, aipatutako dirutzaren %20 bi herriek ordaindu beharko dute.

**Guraso Elkarteak**

Udalak eta Guraso Elkarteak orain dela egun batzuk itxi zituzten beraien arteko aurtengo kontuak. 2.056 euro jasoko ditu guztira elkarteak Herriko Etxetik. Kalgatan, inauterietan, Gazte Topagunean, Goxalin, Amabirjinetan, Olentzerotan eta igeriketa ikastaroan Gura-

soak-ek egindako gastuen trukekoa izan da Udalak egindako dirulaguntza.

Gaia aprobetxatuz, esan, Goizueta eta Aranoko Guraso Elkartearen komisiotan aldaketa egon direla. Sartu diren berriak Maite Alsua, Idoia Zubieta, M<sup>re</sup> Jose Apezetxea eta Joxemi Muñoz dira. Lehendik segituko dutenak, eta beraz, komisiota osatuko dutenak, Igor Elizegi, Jose Luis Apezetxea eta Idoia Aranburu dira.

**F. LANCHAS**  
Akudialorea eta berriztatzailea  
Parket eta parket flotatzaila  
jarztea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 736 M: 607 406 781



EGUBERRIAK → JOAN DA 2010A

## Urteroko itzulia egin dute neska- mutikoek Olentzerorekin

Eta Urtezahar egunean txokolate goxoa hartu dute haur eta gurasoek

### Kontxi KLABER

Poz-pozik azaldu ziren herriko txikitxoak goizean-goiz jarrita zekaten zitara. Bederatzia pasata hasi ziren Suro auzotik kantu kantari etxe batetik bestera, gero beheko auzoa eta azkenik, herria pasatu zuten eguerdia ongi sartuarekin. Ondotik, Kontzejuko tabernan bazkari goxoarekin bukatu zuten, oso nekatuak baina pozik eta gau magikoaren zain.

Joan zen urtean bezala, aldi honetan ere



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ez du hutsik egin aurtan ere Olentzerok, nahiz eta argazkia duela urte pare bat ateratakoa den. Bentaberri eta Arranbide auzoetara ez da kalejira ailegatu, halere.

kale egin du herriko Olentzerok Bentaberri eta Arranbide auzoetatik, izan ere, oso koardila gaztetxoa da eta

gehiegitxo dela erabaki dute beraien gurasoek. Beraiek markatzen dute erritmoa eta hauekin ez dago korrika ibil-

tzerik beraiek ere ez lukete gozatuko. Koxkortzen doazen heinean, berriro animatuko diren usteetan gaude.

Nahiz eta batzuei abisua pasatu zitzaien, baten bat egon daiteke harririk eta barkamena eskatu nahi dute gurasoek.

### Urtezahar egunarekin merienda

Arratsaldeko bostak inguruan elkartu zen jendea Kontzejura Imanol eta Ainhoak hirugarren urtez, Olentzerotako ordainsari gisa herriko haurrentzat eta beraien gurasoentzat prestatu zuten txokolate goxoa hartzera.

Plana ezin hobea urteari amaiera on bat emateko, afari goxoaren aurretik merienda goxo bat edukitzea. Bikoteari eskerrak eman besterik ez dago, hartzen duen lanagatik.

edredoi fundak  
albomozak  
edredoi nordikoak  
ohe estalkiak  
maindireak  
mantelak  
kuxinak  
toailak

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Aste txuria. Merkealdiak. Urtarrilaren 15etik aurrera

## LEITZA

MENDIA → MENDIBILEN DEIALDIA

# Ateraldietan parte hartzeko gonbita egin du Mendi Taldeak

45 kidek osatzen dute Aurrera Elkartearen barne dagoen mendiko atala

## TTIPI-TTAPA

Mendizaleatasuna da elkartzen dituen eta zaleatasun hori asetzeko nahian sortu zuen kuadrilla batek Mendibil Mendi Taldea. Lehendik ere irteerak egiten bazituzten ere, Aurrera Elkarteari elkarte erabiltzeko baimena eskatu eta 2000. urtean eratu zen. Zazpi urte beranduago, 2007-an, Elkarteko Juntak Aurreraren barne, mendia- ren atala sortzeko proposamena egin zien eta halaxe egin zuten. Gaur egun, 45 lagun dira mendiko taldea osatzen duten kideak. Baina horrez gain, urtero 50 federatze txartel inguru ere tramitatu dituzte.

Urte hauetan guztietan, hainbat bazter eza-gutu eta tontor zapaldu ditu Mendibil Taldeak. Ateraldi guztiak desberdinak dira, oso arrakastatsuak batzuk eta ez

hainbeste besteak. Hala, irteera batzuen erantzun eza tarteko, antolatuturiko ibilaldietan parte hartzera animatu ditu Mendibilek gainontzeko taldekideak.

Bestalde, Mendi Taldearen oharrak inguruko hedabideetan jakinarazteaz gain, norberaren helbide elektronikora ere bidaliko dituztela jakinarazi dute. Aldiz, paperean ez da mezu gehiago bidaliko. Blogean ere gisa guztietako informazioa ageri da: <http://mendibilaurrera.nireblog.com>.

## Atekabeltza Elkarte

Atekabeltza eraikina kudeatzeko proposamenak aurkezteko epea urtarrilaren 15ean bukatuko da. Atekabeltza Elkar-



ARGAZKIA: AAM

## «Terrorismoa goratzea» egotzita deklaratu du herritar batek Nafarroako Entzutegian

Jose Jabier Sestorainek abenduaren 15ean deklaratu zuen Nafarroako Entzutegian, «terrorismo goratzea» egotzita. Aurtengo Santiburtzioetan Festa Batzordeak jarritako karpa batera hurbildu zen Guardia Zibila eta bertan jarrita zeuden pankarta eta kartelei argazkiak atera ondoren, momentu horretan betizua erretzen ari zen Jose Javier Sestorain identifikatu zuten. Egun batzuetara, bere abokatuarekin Guardia Zibilarengana joan zen deklaratzera, eta abenduaren 15ean Nafarroako Entzutegian deklaratzera deitu zuten, «terrorismo goratzea» leporatuta. Gertaera salatzeke, 35 herritarrek babes eskaini zioten Iruñean, eta Sestorainek deklaratu bitartean epaitegien aurrean konzentrazio bat egin zuten. Bestalde, bezperan, ez ohiko bilkura batean, mozio bat onartu zuen Udalak, ezker abertzalearen botoekin, Jose Jabier Sestorainen kontrako auzia bertan behera uzteko eskatuz. PPko zinegotzi bakarrak horren kontra bozkatu zuten, eta gainontzekoak ez ziren agertu (hiru EAKoak, bat UPNkoa).

tea sortu zenetik, batzorde bat eratua da eta hauen diru parte hartzen duten eragileak: Gazte Asanblada, Kultur Taldea, Bilgune Feminista, Txalaparta Taldea, Ikasle Abertzaleak eta Pinturazaleak. Baina helbu-

ria Atekabeltza herriko etxea irekia, balio anitzekoa eta parte-hartzailea izatea denez, Udalak gonbidapena luzatua die adin guztietako herritar zein kolektibo orori, proiektu honetan parte hartzeko.

## LAB nagusi Sarrion

469 langilek zuten abenduaren 15ean bozkatzeko eskubidea. LABek 221 botu lortu zituen (8 ordezkari) eta ELAk 137 (5 ordezkari). Orain arte 7 eta 6 delegatu zituzten.

GIZARTEA → IRUÑEKO EPAITEGIAREN AGINDUA

# Plazan mastan jarritako ikurrina kentzeko agindu diote Udalari

## TTIPI-TTAPA

Plazako masta batean jarritako ikurrina kentzeko agindu dio Iruñeko Administrazioarekiko auzietako epaitegiak Udalari eta aldi berean, «aztoratutako ordena legala» berriz ezartzeko.

2009ko urrian onartutako Gobernuaren foru aginduaren bidez, Udalari Nafarroako bandera jartzeko eskatu zitzaion, eta ikurrina kentzeko. Foru Poliziaren

2009ko abenduko txosten batean Nafarroako bandera jarria zegoela jaso zen, baina oraindik ere ikurrina hor zegoela. 2010eko urtarrilean auzitegiatar jo zuen Gobernuak. Eta azken aginduak ikurrina kentzeko eskatu du.

Azken sententziaren harira, Xabier Zabalo alkateak zera adierazi du prentsara bidalitako oharrean: «Euskal kutsua duen ororen aurkako UPNren gurutzada-

ren barnean, beste eraso baten aurrean gaude eta hau erabat salagarria da. Beste behin ere, helburua euskal nortasun ikurrak ekimen amankomun eta eragin-korrekarekin, Euskal Herriko erakunde guztietan eta dagokien lekuan, present egon daitezten bermatzea da, bide bateratu orokor horretarako prestutasun osoa agertzen dudalarik aurrerapausuak ematen jarraitzeko».



EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK

## Opariz betetako gurdia hustu ondotik agurtu dugu Olentzero

Aurten Eguberrietako apainketak auzolanean egin dira

**Juana Mari SAIZAR**

Olentzerok ez gintuen bisitarik gabe utzi. Alde batetik, abenduaren 22an, eskolan festa egin zen Eguberrietako oporrak hartu aurretik, azken egunaren seinale, eta beraiek egindako Olentzero batekin kalejira ere egin zuten herrian. Baina ondoren, benetako Olentzeroren bisita ere izan zuten.

Abenduaren 24ko arratsaldean, bestalde, herrira etorri zen berriz Olentzero, gurdia opariz beteta zuela. Haurrek abestu ondoren, goxokiak eta opariak banatu zituen denentzako. Gauean etxez-etxe pasako zela esanez agurtu zen datorren urtera arte. Espero dugu ongi portatuko zela aresoarrok.

**AUZOLANA**

Aurten Zerbitzu Anitzetako langilea den Jaber bajaran dagoenez, herria Eguberrietarako apaintzeko auzolana antolatu zen eta bere orde, Guraso Elkarteko-



ARGAZKIAK: ANA GOÑIETA IZARNE OLANO

Opariz gainezka etorri da oraingoan ere Olentzero. Egun batzuk lehenago beste opari bat izan zuen Anartz Olanok, Lizarrako pilota txapelketako txapela, hain zuzen.

ek eta Lagun Artekoek edertu zuten herria. Goizean 09:30ean gelditu ziren lanean hasteko. Guraso Elkartea plazako jaiotzaz arduratu zen, eta Lagun Artea, berriz, plaza zaharrean Olentzero jartzeaz. Argiak ere jarri zituzten. Hau guztia, beti ere, Ja-

bierrek nola egin behar den erakutsi ondoren egin zen.


**Beste txapel bat Olanorentzat**

Anartz Olanok abenduaren 11n jokaturako Lizarrako pilota txapelketaren finalean txape-

la irabazi zuen. Partida ez zuen oso ongi hasi, 0-4ko markagailuarekin galtzen hasi baitzen. Baina jokoari buelta eman eta 18-5eko emaitzarekin irabazi zion Agirre aurkariari. Beraz, lerro hauen bidez, zorionak! Urtea bukatzeko modu ederra!

# ferreteria Quevedo

**TXERRI HILTZEAN  
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxa: 948 581 210

# BAZTAN

GIZARTEA → AZPIEGITURA BERRIAK

## Lekarozen 'enpresa kanpusa' egiteko udalaz gaindiko plan sektoriala onartu du Gobernuak

130.452 metro koadroko eremuan

### TIPI-TTAPA

Lekarozen enpresa campusa egin ahalizateko Udalaz Gaindiko Plan Sektoriala (UGPS) onartu du Nafarroako Gobernuak. Enpresa campusa kultur, hezkuntza eta ekonomia jardueretarako egin nahi da eta Gobernuaren esku dagoen Nafarroako Inbertsioak eta Azpiegiturak Sustatzeko Sozietatearen proiektua da. Badirudi, gainera, Nafarroa 2012 Planean lehen tasuna duen ekimenetako bat dela.

Lekarozko kolegioaren inguruan egin nahi da aipatu campusa, 130.452 metro koadroko eremuan. Horietatik 61.000 urbanizagarriak dira.

### Traktoreen azterketa teknikoak

Urtero bezala hasiak dira traktoreen, ziklomotorren eta nekazaritzako bertzelako tresnen azterketa teknikoak egiten. Oraindik gelditzen diren artean, hauek daude: urtarrilaren 7an **Erratzun** egiten da, urtarrilaren 10ean **Azpilkuetan**, urtarrilaren 11 eta 12an **Arizkunen**, urtarrilaren 13an **Elizondon**, urtarrilaren 14an **Beartzunen**, urtarrilaren 17an **Lekarozen**, urtarrilaren 18 eta 19an **Iruritan**, urtarrilaren 21ean **Garzainen**, urtarrilaren 24an **Arraiozen**, urtarrilaren 25 eta 26an **Zigan**, urtarrilaren 27an **Berroetan** eta urtarrilaren 28an **Almandozen**. Otsailean sartuta, 1ean **Orabidean**, eta 2an **Oronozen** egiten dira azterketak.



ARGAZKIA: ARANTXA GAMIO

### Saharar herriaren aldeko elkartasun bidaia

ANAS Nafarroako Sahararen aldeko lagunen elkartearen ekimenez, hainbat lagunek bidaia solidarioa egin zuten abenduaren 4tik 11ra joatekoak baziren ere, aire kontrolatzaileen greba tarteko, hilaren 5ean ailegatu ziren. Kanpamendu hauetan 35 urte daramatzate errefuxiatuak, bere herria Marokoren esku dagoen bitartean eta urtero antolatzen dira harat joateko bidaiak. Udan honat etorritako haurren familietan hartzen dituzte bisitariak eta eskualdetik 10 laguneko taldea animatu zen, Ituren, Erratzu, Elizondo eta Berroetatik joandakoak. Argazkietan, Nafarroatik eramandako laguntza, Smarako kulturarteko festa eta kanpalekuetako haur kuadrilla bi behatzekin askatasuna aldarrikatzen dutela ageri dira. Bertzalde, aipatzekoa da, Marokoko indar armatuek Aaiun hiriburu ondoko kanpalekua erasotu zutenetik –azaro bukaeran– igandero elkarretaratzeak antolatu dituela Saharaztanek inguruko hainbat herritan: Elizondon, Erratzun, Donezteben, Etxalarren...



TESTUA ETA ARGAZKIA: BAZTAN IKASTOLAKO GURASO ELKARTEA

### 200 korrikalari gaztetxo Eguberrietako krosean

Honez gero, urteko egitarauan sustraitua dago ekitaldia. Baztan Ikastolako Guraso Elkarteak antolatu eta Udalak lagunduriko Eguberrietako krosa arrakastatsua izan zen abenduaren 12an. Baztan osoko 200 bat gaztetxok adinaren arabera egindako ibilbideetan (Ikastola aldean edo inguruko karrketan barna) korrika egin zuten. Ohi bezala, Ikastolako ikasleek gain, Elizondoko eta herrietako eskoletako neska-mutikoak ere atera ziren. Ikastolako ttikien klaseetatik hasi eta koxkorragoen taldeek ere gustura egin zuten laster beren dortsalak paratuak zituztela. Goiz hotz hotza izan arren, atletek eta beurek ikustera eta animatzera hurbildutako guraso, familiako, lagunek... giroa ederki berotu zuten. Ondotik, partaide guzietan origarri bana eman zitzaion. Eta bildutako guzientzat, salda, eta pintxo bero eta hotzak banatu zizkieten Guraso Elkarteak. Hortaz gainera, hainbat kolore eta diseinutako kamisetak atera zituzte, Baztan Ikastolaren 40. urteurrena dela eta.

**ANTXITONEA**  
Tinkotasun

24 inguru berrituzkan - Apartaketa  
Aste giroa eta puztasun - Hain trankila eta TI  
Gela berrituzkan eta laster berrituzkan

Brañio Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853  
hotal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

LEGGINTZA → ALKATE BERRIAK

# Errege Egunean hartuko dute herrietako alkateek kargua

Hauteskundeen lehen deialdian 11 herritan aukeratu dira

## TTIPI-TTAPA

Ordenantzek diotenari segituz, eta bi urte-tik behin egiten den bezala, abenduko hirugarren igandean egin ziren herrietako alkate berriak izendatzeko hauteskundeak. 15 herrietan egin zen deialdia, baina 11 tan baino ez ziren aukeratu alkateak, horietatik lau berriak, eta zazpi lehen-goak. Errege Egunean, ortzegun honetan, hartuko dute arduradun berriek kargua. Egun horretan emanen dira urteko kontuak ere bai.

## ALMANDOZ

Luis Roldan izanena da bertze bi urtez alkate segituko duena.

## AMAIUR

Julian Rekalderentzat ez da lehen aldia alkate karguan.

## ANIZ

Asier Maritorenak segituko du orain arte bezala, alkate izaten.

## ARIZKUN

Abenduaren 19an, ez zen inor aurkeztu Juan

Kruz Iriartek azken urteetan bete duen kargua ordezkatzeko eta Urteberri Egunean egiteko auzen beriz batzarrea.

## ARRAIOZ

Sotero Etxandik segituko du alkate lanetan.

## AZPILKUETA

Miguel Mari Ariztia legealdi honetan aukeratu den alkate berrietako bat da.

## BERROETA

Arantxa Zelaia izan da orain arte alkatea, baina aldi honetan ez da inor aurkeztu.

## ELBETE

Urteetan alkaterik gabe egon ondotik, Pedro Goienetxek hartu du ardura. Luis Torres, Peio Alberro, Rafael Irisarri eta Xabier Urreagarekin osatuko du lantaldea.

## ELIZONDO

Bere bigarren lege-gintza beteko du Xabier Torresek alkate lanetan.

## ERRATZU

Xabier Ospital izanena da alkate berria, orain arte Juan Jose Bidartek izan duen ardura bere esku geldituko da.

## GARTZAIN

Hautagairik gabe gelditu



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Goiko argazkian Elbeteko alkate berria eta kargodunak ageri dira Luis Torres, Peio Alberro, Pedro Goienetxe, Rafael Irisarri eta Xabier Urreaga. Beheitiko argazkia Elizondoko batzarrean ateratakoa da, 60 bat lagun bildu ziren.

ziren hauteskunde lehen deialdian, Jose Luis Elizegiren ordezkorik gabe. Urteberri Egunean egitekoa zen batzarrea.

## IRURITA

Pello Obregozo izanena da beriz alkatea.

## LEKAROZ

Legealdi honetan aukeratu den bertze alkate berria da Jesus Angel Gartzia. Jabier Elizalde-ren ordeze ariko da.

## ORONOZ

Bittor Elizagoienek se-

gitzeko asmorik ez duela adierazi ondotik, hautagirik gabe gelditu zen abenduaren 19an.

## ZIGA

Pablo Zenoz izanena da hurrengo bi urteetan alkatea.

**suteia** | igogailuen instalazioa  
Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
suteia@suteia.com

Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailua instalatzen dizugu

# BAZTAN

GIZARTEA → GARAI BATEKO SAN MARTIN ESKOLAN

## Abendutik honat aisialdi eta kultur ekintzetarako egoitza berria du Oronoz-Mugairik

Lau solairutan  
800 metro  
koadro ditu  
garai bateko  
San Martin  
ikastetxearen  
barrenean

### TTIPI-TTAPA

Oronoz Mugairiko bizilagunek 800 metro koadro hartzen dituen gizarte zentroa daukate abenduaren 11z geroztik garai bateko San Martin ikastetxean, aisialdi eta kultur ekintzak antolatzeko eta biltzeko. Horretaz gain, Xaloa Telebistaren egoitza ere hortxe kokatu da.

Gizarte Zentroaren irekiera aunitz gibelera-tu da, Udalak garai bateko ikastetxean etxebizitzak egin zituen erakuntza enpresarekin hirigintza hitzarmena sinatu zuenetik. Hitzarmen horren arabera, lokal batzuk bizilagunek erabiltzeko utzi behar ziren. Virginia Aleman alkateak aipatu zuenez, «lan handia egin behar izan da lokal hauek egin ahal izateko, promotorak ezin izan baitzuten bere konpromisoa bete, gremioek ere gauza aunitz utzi zituzten egiteko eta horregatik gibelera-tu da, baina herritarren eskariz eta azkenean lortu da». Aldi berean, Baztan-

go herri guzietan biltzeko leku bat izateko lanean segituko dutela jakinarazi zuen, «bakarrik Gartzain falta zaigu orai». Egoitzaren inaugurazio egunean egin zituen hitz hauek alkateak.

### SAN MARTIN GUNEA

San Martin Gunea izena hartuko du Gizarte Zentroak, Bittor Elizagoien Oronoz-Mugairiko alkateak azaldu zuen plaketak ageri duenez: «beheko solairua eta bertze hiru solairu ditu, 800 metro koadro guzira eta bakoitzak bere erabilera izanen du».

Beheko solairuan ludo-terekin jartzeko asmoa dago, «aitzinerago mar txan jarriko den zerbitzua», baita gazteendako lokala ere, bere sukalde, bilera-gela eta aisialdirako gelarekin. Lehen solairuan, sukalde duen bertze lokala dago, adineko eta erretiratuendako pentsatua.

Gizarte Zentroaren baitan, erabilera anitzeko aretoa ere bada, gimnasia, dantza edo aerobic emateko prestatua, hormak ispiluekin estalia eta zola bereziarekin. Bigarren solairuan, Xaloa Telebistako bulegoak, muntaia-gela eta plaitoa daude. Eta hirugarrenean, batzarreak egiteko gela eta bertze gelak, inguruko eskola ttiketako ikasleekin elkar-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Erabilera anitzeko aretoa gimnasia, dantza edo aerobic emateko prestatua dago. Inaugurazio ekitaldian, luntxa emateko aretoa izan zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

### Gaztetxoenen ahots goxoak

Saio polita eskaini zuen Elizondoko koru ttikiak abenduaren 3an. 25 neska-mutiko aritu ziren kantuan, Maki eta Kristina Urtaşun irakasleen gidaritzapean eta musika-tresnen laguntzarekin. Gaztetxoez gain, helduek ere abestu zuten.

tu eta ekintzak egiteko erabiliko dira, edo musika, hizkuntza eta bertzelako klaseak emateko.

**Kalitate ziurtagiria**  
Francisco Joakin Iriarte zahar etxeak kalitatearen ISO 9001-

2008 ziurtagiria jaso du. 150 adinekorendako toki du Elizondoko zahar-etxeak.

## ANZABAL INMOBILIARIA



- Zuzirik Asegururak
- Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
- Norma eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
- Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria
- Baserrit, borda, pisu, etab... salmenta eta alkatariak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/F. 948 580 804  
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com




**ttipi-ttapa**

liderrak  
gure eskualdean



ttipi-ttapa  
25000 irakurle

eta baita azterketa egiterakoan  
CIESek **Nafarroa Garaiko**  
**mendialdean**  
hartu duen  
111 udalerrien eremuan ere



SEXUAREN ARABERA



GIZONAK %54  
EMAKUMEAK %46

ADINAREN ARABERA



14-24 URTE %13,4  
25-34 URTE %18  
35-44 URTE %17,8  
45-54 URTE %9,2  
55-64 URTE %21,3  
+ 64 URTE %9,1

IKASKETA MAILAREN ARABERA



IKASKETARIK GABE %18,3  
LEHEN IKASKETAK %28,8  
LANBIDE HEZIKETA %19,9  
BATXILERGOA %37,9  
UNIBERTSITATEA %33

Data iturria: CIES, 2010eko bigarren neurketa.

# SENPERE

GIZARTEA → ELKARRIZKETA

## Xabi Camino amoztarra herrirat itzuli da urte bat Togon iragan ondoren

Afrikatik lanean aritzeko gogo gehiagorekin etorri dela dio

**Franck DOLOSOR**

Xabi Camino 29 urteko amoztar ezaguna pozik itzuli da Senpererat urte bat Togon pasatu eta. Kultura eta informatika animatzailea izan da Loiola jesuitarren kultura gunean Lomen, hango hiriburuan. Camino familiako haurride gazteena biziki ezaguna da lagun eta auzo giroa sortzen baitaki goxoan. Urteetan Amotzeko besta batzordeko kide izan da eta argi da indar berria eman dio auzoari eta Senpereri orokorki. Togon gusturat egon da nahiz eta urte hortan hurbileko hiru lagun zendu zaizkion Euskal Herrian. Bere esperientzia hurbiletik ezagutzeko Xabi Caminorekin mintzatu da TTPI TTAPA.

**Franck Dolosor: Ongi etorri Xabi, nolako abentura bizi duzu?**

**Xabi Camino:** Egia erran bi esperientzia bizi ditut. Alde batetik, kultur trukaketa, lana, eta lankide berriekin. Eta gero bertze bat barnean bizi izan dudana, kolpe bat bezala bakarrik bainintzen. Han, lan berria nuen. Errealitate ainitz ezagutu dut eta galde fran-

go egin dizkiot nire buruari. Hastapenean zaila zen lagunak eta familia ez baintuen ondoan. Gero epe luzerat ongi da denbora hartzen baituzu hango jendea ulertzeko. Hobeki erantzuten diegu hango galdeei.

**FD: Bidaiak eta egonaldiak ainitz ekarri izanen dauzute...**

**XC:** Balio zuen harat joateak. Ideia ongi ondu nuen aspalditik pentsatzen bainuen bidaia hori egitea. Gogoeta luze baten ondorioa izan da bertze zerbait ezagutzeko gogo bainuen. Bertze giro batean bizi nahi nuen. Formakuntza ona izan da han bizitzea. Geroan ere ainitz ekarriko daut han heldutasuna ikasi baitut. Afrika ez nuen ezagutzen edo biziki gaizki. Urruntasun pixka bat hartu behar dugu europarren begiekin begiratzen baitiogu beti. Hemen ongi bizi gara eta han garapena behar dute, gazteek bereziki. Gauza hunkigarriak bizi eta ezagutu izan ditut eta behar bada horiek aldatu naute.

**FD: Abenturak segidarik izanen ote du?**

**XC:** Elkartze ederrak izan ditut han. Orain proiektuak eman dauzkidate eta horietako bat biziki interesgarria da herri baita artisau garapenaz baita. Orain irakurri behar dut eta ikusi nola lagun dezakedan ahal be-



UTZITAKO ARGAZKIA

Xabi Camino Togoko futbolari gazteekin.

### GAZTEAK

**«Hango gazteak miresten ditut auto-kritika egiteko gaitasun handia baitute»**

**Xabi CAMINO**  
29 urteko amoztarra

zain ongi. Ez du balio laguntza ekonomiko soila ematea, lehenago ezagutu behar da herrialdea debaldetan ez aritzeko. Orain hango eskasiak, hutsak eta beharrak ezagutzen ditut. Bat bateko laguntza biziki txarra izan liteke dirua desagertzen baita batzuetan. Ez dira hain behartsuak, beraz, hobe da ongi pentsatzea nola laguntzen ahal den. Hezkuntza eta osasun arazoak jasaten dituzte eta hango Gobernuak egin behar luke zerbait. Nekez ari da lanean hango administrazioa. Hango egitura batean egin dut lan eta horrek parada ematen du laguntza nola ekarri behar den hurbiletik ikusteko.

**FD: Harat itzultzeko asmorik ote duzu?**

**XC:** Bai, dudarik gabe, hasteko harat joateko baimenak baitut beti ere eta paradaz baliatu behar baitut orain. Gutun elektronikoen bitartez harremanetan segituko dut hango lagunekin eta

gainerat ez dut baztertzen bertze bidaia bat egitea. Hiru asteko bidaia egin nezake Togoko lagunak ikusteko.

**FD: Togo eta Euskal Herrian hain desberdinak izanik, harat heltzean zer izan zitzaizun errazena eta zailena?**

**XC:** Errexena, dudarik gabe, hango jendearekin moldatzea izan da, arras plantakoa baita, atsegina. Aise moldatzen naiz jendearekin eta egia da haiek ere ongi hartu nautela. Eta zailena ere, behar bada, kontaktua izan aurreiritzi ainitz baita bizi ikusteko molde arrunt desberdinak baitira. Gainerat, azentu arazoak izan ditugu. Frantsesez mintzo ginen baina ni nire azentuarekin eta haiek berenarekin. Hastapenean ez genuen beti ongi elgar ulertzen eta zaila izan zait bi astez bederen. Eskerrak umorea dudana eta horrek lagundu nau aise ibiltzeko jende artean. Naizen bezalakoa agertu naiz han eta horrek lagundu nau. Zaintsua eta dinamikoa naiz eta han pazientzia behar dela ikasi dut.

**FD: Togorat joan aitzin dudak izan zenituen. Orain indartsuago sentitzen ote zara?**

**XC:** Uste dut baietz. Lehen baino indar gehiago

daukat orain eta gogoia dut gauza frango egiteko. Pena ematen daut ikustea hemen dena dugula eta alta gehiago mugitu behar genukeela oraino ere. Hango gazteak miresten ditut auto-kritika egiteko gaitasun handia baitute. Ainitz ikasi dut haiekin. Frantzia kritikatzan dute baina hori bigarren gauza da, lehenik beren buruaren kontra ari baitira. Nire ustez, hemen gehiago egin behar genuke. Jende ainitz lanean ari da baina ikusiz zer errextasun dugun gehiago mugitu behar dugu. Iratzarri behar dugu gure arazoei neurria emanez. Begirada berria dut orain. Beti mutiko bera naiz baina gauza gehiago nahi dut. Togoko lagunak ditut gogoan. Ikasten ari dira eta seguraski lanik ez dute izanen. Horrek kezkatzen nau. Emozio handia bizi dut itzultzean. Konfidantza dut munduguziarengan eta espero dut aitzina segituko dudala.





KULTURA → INTEGRAZIO BATZORDEAREN ALDE

## Oroitzapenetik bidaiarat ikusgarriak arrakasta ukan zuen

### 550 sartze baino gehiago banatu ziren

**Joanes GARCIA**

Zazpiak Bat taldeak Integrazio Batzordearen alde antolatutako ikusgarria, abenduaren 19an, taularatu zuten. Poliki-roldegia jendez gainezka egon zen 550 sartze baino gehiago banatu baitziren. Han egon zirenen hitzetan ikusgarri oso hunkigarri, umoretsu eta kalitatezkoa eskaini zuten 100 saratarrek.

### Sara Korrikaren biltzar nagusia

Abenduaren 11an, Sara Korrikak biltzar nagusia burutu zuen. Pepe Iramunok lehendakari lanetan segituko du,

baina bulegoan aldaketa ttipi batzuk izanen dira. 2010 urteko bilana ezin hobea izan da bai antolaketa bai kirol mailan. 30 korrikalarik osatzen dute taldea. Haie-tarik maila oneko 3 korrikalari berriri ongi etorria egin zaie: Latapy, Urruty eta Fattah. Antolaturiko lasterketak arrakastatsuak izan dira (Sarako trail, Kontrabandisten lasterketa, Bestetako lasterketa). Horrez gain, taldekideek beste 40 bat lasterketetan presentzia ukan zuten. Go-raipatzekoak: Vacquiéren garaipena Amotzen, Aldudeko lasterketan eginiko balentria lehen hiru postuetan hiru saratar kokatuz (Latapy, Vacquié, Vignole) eta nola ez aipa adinekoen mailan Pepe Iramunok lortu di-



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

Ehun saratarrek ikusgarri umoretsu eta kalitatezkoa eskaini zuten abenduaren 19an.

tuen garaipenak.

Betiko lasterketak antolatzeaz gain helburu nagusi bat dute aurten: Mont-Blanc-ko lasterketa gogorrean parte hartzea. Bilkura afari baten inguruan bukatu zen.

### Errugbi taldearen mus txapelketa

Mus txapelketa urtarilaren 22an iraganen da. 5 euro galdeginak izanen zaizkio jokalaria bakoxtari. Arratsean 20 eurotan den afari bat gozatzeko parada izanen da. Izen emaitak zenbaki hontara egin behar dira: 0613951254.



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

### Olentzero

Olentzero ikazkina eta Mari Domingi haren esposa kaleetan barna ibili dira zahar eta gazteen bozkarioarendako. Olhain ikastolako gurasoek gaztainak erretzen eta herriko etxeko kideek aperitifa eskaintzen zutela Sarako Kantariek giroa berotu zuten.

**MENDI ostatua**  
Santiago 25  
948 580 313  
ELIZONDO

**MENDIALDE**  
T. 948 453 060 - AMAIUR  
www.mendialdea.com

**egoi bardot obregozo arkitektoa**  
679649789 elizondo - braulio iriarte 33, 1ºD - 31700  
948250371 inueña - irabeko monastegia 62, 4ºC - 31011

**ARMUA JATETxea**  
T. 948 580 131  
Ezpeletanburuko errep. 3km  
ELIZONDO

**MONTXO OSTATUA**  
Dantxarinetik 2 km-tara  
**ТАВАКО-ДЕНДА**  
**АНЗАН-БОРДА • УРДАЗВБИ**  
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

**VENTA PEIO**  
T. 902 210 800 • www.venta-peio.com  
Bere (Administratiboa) 31700 BERNA | Dantxarinetik 31712 URDAG | Berrito 31700 BERNA | Luande 31000 LUENDE

## EZKONTZAK

**Ez dago datu berririk.**

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## SORTZEAK

**Naroa Belauntzaran Zabaleta**, Aresokoa, abenduaren 12an.  
**Nahia Iriarte Mikelarena**, Doneztebekoa, azaroaren 16an.  
**Mikel Urreaga Elizondo**, Doneztebekoa, abenduaren 9an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.*

## HERIOTZAK

**Jesus Jaurena Santxotena**, Elbetekoa, azaroaren 17an, 76 urte.  
**Bittor Irisarri Sanzberro**, Etxalarkoa, abenduaren 7an, 80 urte.  
**Miguel Angel Olaetxea Aiestaran**, Lesakakoa, abenduaren 10ean, 50 urte.  
**Micaela Bera Aleman**, Narbartekoa, abenduaren 10ean, 88 urte.  
**Maria Teresa Errandonea Endara**, Berakoa, abenduaren 11n, 90 urte.  
**Lorenzo Bikondo Barrenetxe**, Arizkungoa, abenduaren 13an, 79 urte.  
**Angeles Etxeberria Etxenike**, Elizondokoa, abenduaren 14an, 100 urte.  
**Carmen Folgar Pena**, Elizondon, abenduaren 16an, 88 urte.  
**Maria Rosario Marquez Pastrana**, Legasan, abenduaren 16an, 48 urte.  
**Martin Mindegia Garmendia**, Aurtizkoa, abenduaren 15ean, 87 urte.  
**Ignacio Jaimerena Aleman**, Arizkungoa, abenduaren 16an, 84 urte.  
**Lucia Salaberria Lujanbio**, Goizueta, abenduaren 13an, 80 urte.



### Xabier TELLETXEA ETXEBERRIA

Igantzi, 2010eko azaroaren 28an, 33 urte zituela

Mina bikoitza da ausentzia ez dugunean espero erantzunik ez duten galderak erantzun behamaz edo...  
 Orain bihotza negarrez eta oroimena bero-bero.  
 Iribarreak eta malkoak bat bertzearen hurrengo.

Emozioen gainpilatzea sentipen barren-barrengo guztia nola adierazi jakiterikan balego...  
 Agur Zabino, beti gogoan izanen zarenez gero zure irria gogoratuko dugu goizero goizero.

**ZURE FAMILIA**



Luzaro denak uzten omen du arrasto borra ezina gazte joan arren guttik bizi du zuk bizi duzun adina.  
 Lagun zenuena laguntzea zure lehen ahalegina zenbat alditan erranen dugu gure ondoan bazina...  
 Bihotz oneko kaskagogorra apal eta atsegina irri alaia bestazalea gainera langile fina zure errautsak libre badoaz ta haiekin gure mina gurekin orain gelditzen dira zure poz ta bizi grina.

**Xabier  
TELLETXEA  
ETXEBERRIA**

**HIRE LAGUNAK**

## Rekordatorioak egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua*

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar  
Tfnoa: 948 63 54 58



**Alberto  
REKARTE**

Argentinako La Pampan hil zen,  
2010eko urriaren 18an

*Maitasunez gogoratzen zaitugu  
eta tristura eta errespetuz,  
Argentinako familiaren saminarekin  
bat egiten dugu.*

**REKARTE FAMILIA**



**Jesus  
ANZIZAR ARRUPEA**

**I. URTEURRENA**

Donezteben hil zen, 2010eko urtarrilaren 10ean,  
74 urte zituela

*Sobera abudo joan bazinen ere,  
beti gogoan eta bihotzean  
izanen zaitugu.*

**EMAZTEA, SEME-ALABA, BILOBAK ETA FAMILIA**

Bere urteurreneko meza urtarrilaren 9an  
eginen da, Doneztebeko Elizan, 12:00etan.



**Jose Antonio  
IRIARTE IBARRA**

**I. URTEURRENA**

Sunbillan hil zen, 2010eko urtarrilaren 7an,  
65 urte zituela

*Gure oroimenean  
izanen zara betiko.  
Ez agurrik, ez adiorik,  
geroarte baizik.*

**EMAZTEA, ALABA, SENIDEAK ETA FAMILIA**

Bere urteurreneko meza urtarrilaren 9an  
eginen da, Sunbillako Elizan, 10:00etan.



**Blas  
GORTARI MENDIBURU**

**I. URTEURRENA**

Elizondon, 2009ko urtarrilaren 4an, 79 urte zituela

*Zure begien dizdira  
eta expainetako irria  
beti gurekin egonen dira  
aitaxi maitagarria.*

**EMAZTEA, SEME-ALABAK ETA BILOBA**

Bere urteurreneko meza urtarrilaren 9an  
eginen da, Elizondoko Elizan, 12:00etan.



**Telesfora  
MENDIBURU GORTARI**

**I. URTEURRENA**

Elizondon, 2009ko uztailearen 19an, 91 urte zituela

*Gogorra da onartzea  
gehiago ez zaitugula ikusiko  
baina bizi garen artean  
ez zaitugu ahaztuko.  
Orain gaude ezin kontsolaturik  
bihotzean dugun pena  
Jaingoikoaren altzoan  
har ezazu atsedena.*

**ILOBAK ETA BILOBA**



**Jesus  
JAURENA SANTXOTENA**

Elbeten, 2010eko azaroaren 17an, 76 urte zituela.

*Aite, egun batez  
gan zinen gure ondotik  
baina beti egongo zara  
gure bihotzetan.*

**ZURE FAMILIA**

**AGIRRE, Iera**

Leitzako pilotariak Euskal Herriko pala txapelketa irabazi zuen bigarren aldiz Oartzunen apirilaren 24an, Maider Otegiarekin batera.

**AMAIUR**

Sokatira taldeak Nafarroako txapelketa irabazi zuen bigarren aldiz, gizonetako nahiz emakumeetako nahiz emakumeetako. Horretaz gain, mutilek otsailan Munduko txapelketan parte hartu zuten Italian eta zilarrezko domina gorkoratu zuten 560ko kategorian. Berriki, emakumeek Euskadiko lauko txapelketa irabazi dute 250 kiloko kategorian.

**ARIZTEGI, Maika**

Euskal Herriko koxkor biltze txapelketan bere bederatzigarren txapela jantzi zuen Ozetan (Araba) azaroaren 20an, marka berria ezarriz (07:17).

**ARKUPE Elkarte**

Lesakako pilotazale elkarteak 25 urte bete ditu eta abenduaren 5ean jaialdi polit batekin ospatu zuen mende laurdena.

**BARRIOLA, Abel**

Lesio larri batek eragindako urtebeteko gurutzebidearen ondotik martxoaren 12an berriz ere kantzetara bueltatu zen sorterrian. Lau t'erdiko txapelketan azpi-

**Amaiurko sokatira taldeko neska nahiz mutilek hainbat txapel lortu dituzte.**


txapeldun izatea lortu du leitzarrak. Aimar Olai-zolak ere lesio larria gainditu zuen.

**ERRANDONEA, Beñat**

Dakar Argentina-Rallyan 16. izan zen auto gidari saratarra. Abiatu ziren 134 autoetatik 57 bakarrik ailegatu ziren helmugara.

**ETXEGARAI, Fernando**

Mendi lasterketa zirkuituan punta-puntan ibiltzeaz gain, Sara Trail, Urdazubiko Kontrabandisten Krosa, Sarako Kontrabandisten lasterketa (bosgarren aldiz) eta bertze zenbait irabazi ditu, baita Euskadiko koxkor biltze txapelketa ere, zazpigarren aldiz.

**EZKURRA, Koteto**

Doneztebarren arteko lehia izan zen irailaren 4an Galarretan, Kursaal Kasinoaren txapelketaren finalean. Koteto Ezkurrak 30 eta 24 ira-

bazi zion Julen San Migel gazteari, bakarkako bere hamargarren txapela lortuz.

**GENARO Taldea**

Baztan-Bidasoaldeko errealezaleen peñaren inaugurazio ofiziala egin zen urtarrilaren 27an Berako Rikardo Baroja ikastetxean. Garai bateko eta egungo Realeko jokalariek izan ziren Genaro eta Unai Zelaia omendu zituzten egunetan.

**FAGOAGA, Itsaso**

Skeet Olinpikoan Nafarroako eta Espainiako txapelketa eta kopaguziak irabazteaz gain, laugarren izan zen Europako txapelketan, uztailean Kazanen (Errusia). Espainiako marka berria egin zuen.

**IRIARTE, Esther**

Euskadiko Txinga Eramate Txapelketa irabazi zuen narbartearrak irailaren 12an Lantzen, hirugarren urtez segidan. Gainera, sokatiran Nafarroa eta Euskadiko txapeldun izan da Amaiurrekin.

**IRURITA**

Baztan-Errekako laxoa txapelketaren 32. edizioan bere zazpigarren

txapela jantzi zuen Iruritik Joseba Urtsasun, Guillermo Etxenike, Jesus Etxenike eta Xabier Riparekin. Abuztuaren 1ean Oizen jokatu-tako finalean Iruritik bertze taldea izan zuten arerio.

**JAUNARENA, Jon**

Abenduaren 29an egin du profesionaletan debuta Asperekin 18 urteko pilotari leitzarrak, gazte mailetan hainbat txapel irabazi eta gero (azkena Nafarroako txapelketa buruz buru).

**KENPO**

Pixkanaka hedatzen ari da karatearekin zerikusia duen kirol hau eskualdean eta Nafarroako lehenbiziko txapelketa Urdazubin jokatu zen maiatzaren 8an. 89 *kenshi* bildu ziren eta txapel aunitz eskualdean gelditu ziren.

**LARRETXEA, Oihan**

Orain arte Donatoren seme bezala ezagutzen genuenak bere lekua hartu du aizkoran. Urte ederra izan da Berako gaztearentzat, Urrezko Aizkolarien banakako txapela irabazi baitzuen ekainaren 5ean Azpeitian, 23 urtez behetikoen kategorian. Nafarroako maila nagu-

**Iruritik zazpigarren aldiz irabazi du Baztan-Errekako laxoa txapela.**

siko finalean aritu zen aitarekin batera urriaren 3an Etxarri-Aranatzen eta Euskadiko bigarren mailako finalean Donezteben azpitxapeldun izan ondotik, lehen mailan ariko da aurten.

### LOIARTE, Joxeantonio

Nafarroako hirugarren mailako aizkora txapelketa irabazi zuen zubietarrak abuztuaren 29an Arazurin. Azpitxapeldun izan zen Raul Kastro urroztarrarekin batera, bigarren mailan ariko da aurten.



### MAIA, Mikel

Erreka taldean ari den pilotari lesakarrak ezuste handia eman eta Guillermo Mazo Memoria-laren finala irabazi zuen abenduaren 3an Labriten. 14-17 galtzen ari zen Lizarrako Unanua-ren kontra eta 18-17 irabazita lortu zuen jube-

nil mailako Nafarroako lau terdiko txapela.

### MARIEZKURRENA, Javier

Kamioi gidari doneztebarra buru duen Truck Navarra taldea 11. izan da Europako txapelketan, sekula izan duen emaitzarik onena, 55 puntu eskuratu ondotik. Gainera, lehenbiziko aldiz, Sponsors Challenger txapelketa irabazi du taldeak.

### MEOKI, Patxi

Txirrindulari elizondarra Espainiako txapeldun suertatu zen uztailearen 25ean Segovian, master 50 kategorian. Elizondarrak bi aldiz irabazia zuen Espainiako kopa eta txapeldun izatetik hurbil ere ibili zen adin tikiagoko kategoriatan, baina 50 urte egin dituen urtean lortu du maila horretako txapelketa. Nafarroako txapeldun ere izan zen Baztanen bertan.

### MINDEGIATARRAK

Ikusmin ikaragarria sortu zuen otsailaren 21ean Doneztebeko pilotalekuan Malerekako lau lagunek egindako aizkora desafiok. Hilario eta Migeltxo Mindegia osaba-ilobek irabazi egin zieten Iturengo Joseba Andiarena Bordazuri eta




Julen Uhartea urdazubiarra eskuinean eta Xabi Etxegarai ezkerrean.

Juanito Mariezkurrena Arroxeneri zortzi kanardiko mozteko lehia. 910 sarrera saldu ziren eta ikusleak milatik gora izan ziren.

### NAFARROA

Herri kirolean, zazpigarren urtez segidan Zazpi Herrialdeko txapelketa irabazi du Nafarroak, eskualdeko kirolari aunitzen partaidetzarekin. Nafarroako hainbat txapel ere lortu ziren Sanferminetan: Unai Bertiz sunbildarra harriarekin, Xabi Sein igantziarra lasto altxatzen, Joakin Aiora iturendarra ingudearekin eta Joseba Petrirena beraterra gurdia-rekin. Irailaren 5ean txingira txapelketa irabazi zuen Migel Angel Sunkuntza leitzarrak bere sorterrian.



### NIEVE, Mikel

Profesionalen lehen garaipena non, eta Espainiako Vueltako etapa nagusian lortu zuen Euskaltel taldeko txirrindulari leitzarrak irailaren 13an Cotobellon. Saillkapen nagusian 12. postuan bukatu zuen Vuelta.

### ONSALO, Unai

Pilotari aresoarra Munduko txapeldun izan zen Pauen buruz buru. Mololo Irigoien lesakarrak ere urrezko domina lortu zuen binaka.



### PLAZA, Xabier

Nafarroako arrastoko ehiza zakurren bigarren

txapelketa irabazi zuen Xabier Plaza Garbisu Lesakako Zalain Zoko-ko ehiztariak Etxarri Aranatzen maiatzaren 8an, Jai zakurrarekin 153 puntu eskuratu ondotik. Etxalarko Jon Sanzberro eta Bat zakurra bigarren izan ziren.

### SARALEGI, Eneko

Jubenil mailan Urrezko Aizkolarien banakako txapelketa irabazi zuen ekainaren 5ean Azpeitian. Euskal Herriko aizkolari gazteen txapelketan azpitxapeldun izan zen Leitza irailaren 5ean.

### UHARTE, Julen

Espainiako Kros Country txapelketan txapeldun izan zen motor gidari urdazubiarra, senior B kategorian hiru probetatik bi irabazita. Kategoria berean, Xabi Etxegarai lesakarra laugarren izan zen.

### VILA, Patxi

Espainiako neguko triathlon txapelketan brontzezko domina eskuratu zuen urtea. Gure Txokoak bigarren aldiz antolatutako Larungo BTT iguera gogorra irabazi zuen eta berriker onena, aurten berriker ere txirrindularitza profesionalen ikusiko dugula, Italiako Ceramica Flaminia taldean.



Migeltxo eta Hilario Mindegia ezkerrean, Bordazuri eta Arroxene eskuinean.

## urtarrilak 06-19

Informazioa bidaltzeko: [info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net) edo 948 63 54 58

<p><b>Kontzertuak</b></p>  <p>BERA   2011.01.08</p> <p><b>Lesakako musika bandaren kontzertua Kultur Etxean</b></p> <p>Hainbat filmeren soinu banda eskainiko du Lesakako Musika Bandak Berako Kultur Etxean, 20:00etan hasiko den emaldian. Sarrera: 5 euro.</p>	<p><b>Ospakizunak</b></p>  <p>ARANTZA   2011.01.06</p> <p><b>Mendi Mutilen besta aurten ere Aterpe jatetxean</b></p> <p>Iaz bezala aizkolarien saioa, trikitilariak eta Egaña eta Lizaso bertsolariek girotutako bazkaria eta On Esteban Irigoien apezari omenaldia egingen dira.</p>	<p><b>Ospakizunak</b></p>  <p>ELIZONDO   2010.01.17</p> <p><b>San Anton Eguneako zozketa Zahar Etxearen alde</b></p> <p>San Anton egunez, eguerdian Francisco Joaquín Iriarte Zahar Etxea laguntzeko zozketa egingen da, dagoeneko 134 urte bete dituen ekitaldia.</p>
--	--	--

**Kontzertuak**

BERA

**Urte berrirako kontzertua**

**Urtarrilaren 8an** Lesakako musika bandak kontzertua eskainiko du Berako Kultur Etxean 20:00etan. Sarrera: 5 euro.

**Erakusketak**

ELIZONDO

**Patxi Aranoaren pintura erakusketa**

**Azaroaren 29tik urtarrilaren 8ra** Patxi Aranoaren pintura erakusketa Arizkunenean.

**Irunberriko margolarien erakusketa**

**Urtarrilaren 11tik otsailaren 5era** Irunberriko zenbait margolarien pintura erakusketa Arizkunenean.

**Emakume baserritarren begiradak erakusketa**

**Urtarrilaren 10etik 22ra** Raquel Rico margolari beratarrek egingo dako argazkiekin erakusketa antolatu du EHNE sindikatuak Arizkunenean.

**Ospakizunak**

ESKUALDEA

**Errege Kabalgatak herriz herri**

**Urtarrilaren 5ean** herri gehienetan Errege Magoen Kabalgatak egingen dira.

ARANTZA

**Mendi Mutilen besta omenaldia**

**Urtarrilaren 6an** iaz berreskuratutako ohi-turari segituz, Mendi Mutilen besta antolatu du Aterpek. Goizean

aizkora saioa, trikitilariak eta Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin bazkaria eta On Esteban Irigoien apezari omenaldia eskainiko zaio.

ELIZONDO

**San Anton Eguna**

**Urtarrilaren 17an** ohiko zozketa egingen da 12:00etan Foru Plazan.

LEKAROZ

**Nafarroako Eskola Ttikien I. Jardunaldiak Urtarrilaren 29an**

farroako Landa Eremuko Eskola Ttikien I. Jardunaldiak ospatuko dira. Xehetasunak 4-5 orrietan.

**Antzerkiak**

BERA

**Emitza taldearen antzeslana**

**Urtarrilaren 9an** Emitza taldearen *¡Dios mío, evita que nos corten la luz!* antzeslana ikusgai izanen da 18:00etatik aitzine-za Kultur Etxean. Kultur Batzordeak antolatua.

**Inauteriak**

ERATSUN

**Eskualdeko lehen inauteriak**

**Urtarrilaren 15-16an** ospatuko dituzte inauteriak Eratsunen. Xehetasunak 20. orrian.

**Tailer irekiak**

ELIZONDO

**Izen emateak urtarrilaren 17tik 21era**

**Urtarrilaren 26 eta 27an** *Google: Zerbitzu eta trukuak* ikastaroa emanen da 10:00etatik 12:00etara.

**Otsailaren 7 eta 9an** *Azkar ezazu zure PC-a* ikastaroa emanen da 19:00etatik 21:00etara.

**Otsailaren 14 eta 16an** *Bideo digitalen edizioa: Movie-maker programa* ikastaroa emanen da 19:00etatik 21:00etara. Eskiz Informatika zerbitzuak eskainiko du doan. Izen ematea urtarrilaren 17tik 21era.

**Urtarrietik ekaina arte** pintura tailerra eskainiko da, astelehen eta ortzegunetan 17:00etatik 21:00etara Arizkunenean. Informazio gehiago: 609 329618.

**Ikastaroak**

ELIZONDO

**Ordenagailuz idazten ikasi**

**Urtarrilaren 24tik otsailaren 4ra** word hasi berriendako maila emanen da Eskizen astelehen, asteazken eta ortziralean 19:00etatik 21:00etara. Matrikula: 30 euro.

**Zura lantzea ikastaroa**

**Urtarrilaren 26an** hasita asteazkenean 42 orduko ikastaroa eskainiko da Arizkunenean 09:45etik 13:15era. Matrikula: 60 euro erroldatuek eta 100

## PROPOSAMENA

BERA

**Santa Barbarara Igoera laugarren urtez**

Loro, Zubi eta Saralegiren omenez urtarrilaren 8an egingen da Santa Barbararako IV. Igoera, sei kilometro terdiko proba, Manttalle taldeak, Agerra Mendi taldeak eta Gurre Txokoak antolatua. 15:00etako binakako kronoigoeraren aitzine-tik ibilaldi gidatua egingen da kiroldegitik abiatuta eta ondotik berendua eta zozketak ere izanen dira.



euro erroldatu gabeko-  
ek. Izen ematea  
Arizkunenean urtarrila-  
ren 17tik 21era.

## Kirolak

BERA

### Santa Barbarako Igoera laugarrenez

**Urtarrilaren 8an** Santa Barbararako IV. Igoera antolatu dute Manttala Mendi Lasterketa Taldeak, Agerra Mendi Taldeak eta Gure Txoko elkarteak. 14:30ean ibilaldi gidatua kiroldegitik eta 15:00etan bi-nakako kronoigoera. Ondotik berendua eta zozketak.

## Mendi irteerak

BAZTAN

### Urte hasierako ateraldiak

**Urtarrilaren 9an** Baztango Mendigoizaleek Lekaroz-Olaberri-Beltzuri-Etxebertzeko borda-Eskisaroi-Atxuela-Unboto-Bagordi-Lekaroz bidea eginen dute 08:00etan abiatuta.

**Urtarrilaren 16an** Baztango Mendigoizaleek Berroeta-Barazelai-Gartzaga-Saioako erreka-Berroeta bidea eginen dute 08:00etan abiatuta.

## Zinema

LEITZA

### Urteko lehen emanaldiak


**Urtarrilaren 7 eta 9an** *Copia certificada* filma ikusgai zinemari.

**Urtarrilaren 14 eta 16an** *Buried. Enterrado* filma ikusgai zinemari. Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean. Sarrera: 6 euro.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

## ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

### Liburua




Antxume tentela!  
Ahate txepela!

ISABEL ABEDI

Ttarttalo, 2010

Ahatetxoa eta antxumea adiskide minak dira egiaz. Baina noizean behin haserretu egiten dira eta ez dute elkarren berri jakin nahi izaten... Istoriario hauetan, haurtzaroen ohikoak bezain funtsezkoak diren bizipenak jasotzen dira: lehenengo, ahatetxoaren ikuspuntutik; eta gero, antxumearenetik. Haserretu eta bakeak egin, kendu eta itzuli, galdu eta irabazi, aitortu eta barkamena eskatu. Ikuspuntuz aldatzeak berteak nola sentitzen diren ulertzen laguntzen die haurrei, eta gatazka-egoeretan hobeki moldatzen ikasten dute. Guraso eta hezitzaileei zuzendutako atala ere badu. Isabel Abedi idatzi eta Silvio Neuendorf-ek ilustratutako ipuin bilduma Bakun Itzulpen Zerbitzuek euskararatu dute. 4 urtetik goitiko neska-mutikoentzat irakurgai gomendagarria.

### Musika



XXI. mendeko piratak

ZAIN

Baga-biga musika  
ideiak, 2010

Zain taldea zorioneko dago, guraso izan baitira. XXI. mendeko aita-amak. Berrizko laukote bizkaitarrak hamabi abesti zorrotz, eta aldi berean, punk-pop goxo-goxoak erditu ditu. «XXI. mendeko piratak» diskoa bizi-tramankulua da eta bikain konpondutakoa. Diskoa, Baga-Bigak editatutakoa, izenburua ematen dion abestiarekin hasten da, zeinak Bad Religion taldearengana eramaten gaituen eta antzekoa gertatuko da, «Jainkoen zerbitzariak» diskoa bukatzeko abestiaren soinua parametroekin. Baina abesti bakoitzari bila diezaizkiokegu hain ezagunak ez diren eragin nabarmenak. Sugarcult edo Millencolin taldeko gitarrajotzailearen Franky Lee talde paraleloaren antzekotasuna dute. Zain taldearen taupada iraultzaileek 1990eko Gasteizko Elefante Blanco aretoko hardcore melodiko gaue-tara eramaten gaituzte.

### Internet



Literaturaren uretan  
utzitako arrastoa

WWW.UBERAN.ORG

Hitzen Ubera jaio da. Euskal literaturan zer mugitzen den jaso nahi duen webgune berria. Anbizio handikoa da, egiten dena kontatzeaz gain, sortzaileei beraien lana argitaratzeko lekua eman nahi die eta 2.0 deitzen den Interneten aro berri honetan parte hartzeko ateak zabaldu. Ubera, berez, itsasontziak uretan uzten duen arrastoa da eta asmo hori du proiektu berriak, literatur munduak eragiten dituen arrasto guzti-guztiak batzea. Bi kazetari daude webgunearen gibelean, biak ere literatur munduari oso lotuak: Uxue Alberdi idazle eta bertsolaria bat, Oier Guillan idazle eta aktorea bertzeta. Literaturarekin zerikusia duten nobedadeak, erreportaje, elkarrizketak, bideoak, agenda biltzen ditu eta leihoa zabalik dago idazle, marrazkilari eta argazkilarien lanari ere. Erabiltzaileendako propio sortutako eztabaidagunea ere badu.

## Nire aukera



Jaime BIGURIA  
Elizondoko Eskiz Informatika

### «Musika arront gogokoa dut eta mendian ibiltzea ere gustatzen zait»

Informatika dendak eta hiru alaben ardurak nahi baino asti libre gutiagoko uzten badio ere, «balduten pixerra aprobeztatzen saiatzen naiz» dio Biguriak. Halakoe-tan musika eta mendia ditu afiziorik gustukoena: «Musika arront gogokoa dut, banda, atabala... eta gero mendien ibiltzea: Baztanen berean, Auñamendietan ahal delarik...». Astebururako plan perfektuan familiak leku garrantzitsua hartzen du, «familiarrekin gozatu, haize pixke bat hartu gure mendietan, argazki batzuk atera, eta lasaitasunarendako astia ere hartu» dio Jaimek. Oporretan itsasorako joera hartu duela aipatu digu elizondarrak: «denbora batez mendi aldera botatzen banuen gehiagorene burua, gaur egun itxaso bazterreraino aisago hurbiltzen naiz familiarrekin». Noizbait Afrika ezagutzea ere gustatuko litzaike, «ez baino gogorki kanporatuta atera». Umeekin zinema eta liburutegira hurbiltzen saiatzen da, «eta interneten ere bazter-rak nahasten pixke bat».

**ETXEBIZITZAK**  
salgai

**BERA.** Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldea balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. 3. solairuan eta igogailuarekin. ☎948 631381 / 697 436845/ [elvetearra@aol.com](mailto:elvetearra@aol.com).

**DONEZTEBE.** Zazpigerutze plazan 115m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreinatu gabea. ☎630 948271.

**LESKA.** Etxebizitza salgai. Prezio onean. ☎609 477277.

**ERATSUN.** 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

**ELIZONDO.** Pisua salgai, 3 logela, sukaldea, komuna, jantokia eta balkoia. Berogailua. ☎676 707620.

**ANZABAL**  
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

**IPARRALDE eta BIDASOA alderdian**

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

**ZUGARRAMURDI**

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatua bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

[anzabal@anzabal.com](mailto:anzabal@anzabal.com)

**DONEZTEBE.** Rosa Seminario 6-1 kalean pisu polita salgai. 3 logela, 2 komun, sukalde era egongela, logela bat komunarekin eta sukaldea mobleztatua. Guztira 120 m<sup>2</sup>. 95 m<sup>2</sup> pisuak eta 25 m<sup>2</sup>terraza eta balkoi komunikatuarekin. ☎696 312019-650156988.

**IRUN.** 100 m<sup>2</sup>ko pisua salgai, Pio XII plazan, 4 logela, 2 bainugela, su-

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

[info@ttiipi.net](mailto:info@ttiipi.net) edo [www.ttiipi.net](http://www.ttiipi.net)

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

kaldea, egongela, 12 m<sup>2</sup>ko trastelekua, 2 balkoi, igogailuarekin. ☎943 611111-696 479694.

**LESKA.** Plaza Zaharrean, pisu eraiki berria salgai, 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, terraza, igogailuarekin. Eraikin berean, garaje itxi - ak eta irekiak, trastelekua. ☎943 611111-696 479694.

**ETXEBIZITZAK**  
errentan eman

**DONEZTEBE.** Herri erdian dagoen pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, egongela-jangela eta sukaldea. Gela guztiek kanpora ematen dute. ☎699 798207.

**BERA.** Iturlandetan pisua errentan emateko. 3 logela eta igogailua. ☎948 630090/617 565487.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
salgai

**BERA.** Kanttonberri karrikan 78 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. ☎627 914271.

**IGANTZI.** Lokal komertziala salgai edo errentan emateko. ☎615 746622.

**IRUN.** Erdian funtzionamenduan dagoen pub salgai. 85 m<sup>2</sup>ko lokala, lizentzia ordutegi zabalarekin, guztia ekipatua, arazoizko prezioa. ☎943 611111-696 479694.

**GARAJEAK/LOKALAK**  
errentan eman

**DONEZTEBE.** Donamariarako errepidean 50 m<sup>2</sup>ko lokala errentan emateko, bainugela, argia eta ur beroarekin. Lokal komertziala izandakoa. ☎656 768024.

**ELIZONDO.** Lokal komertziala errentan emateko. Bulegoa paratzeko prestatua dago. Prezio interesgarria. ☎626 021643.

**LURRAK/ORUBEAK**  
salgai

**LESKA.** Nabaz auzoan lur eremua salgai. 2.600 m<sup>2</sup> eraikigarri. ☎661 219827.

**ARIZKUN-BOZATE.** Bi bizitzako bi etxe eraikitako 1.912 m<sup>2</sup>ko lur eremua salgai, proiektorekin. Interesgarria. ☎943 611111-696 479694.

**LANA**

## eskariak

**LEITZALDEAN eta LEKUNBERRI INGU-RUAN.** Neska bat lan bila. Urte osoan ariko litzateke: umeak edo adine-

koak zaintzen, etxeak garbitzen, zerbitzari, dendari... Auto propioa eta manipulazio txartela... ☎695 716894/ 948 510665.

Doneztebeko 35 urteko igeltsero batek edozein guzuzetan lan eginen luke. ☎665 729001.

**ZERBITZUAK**  
denetarik**LANA**

## eskaintzak

**LESKA.** Linddurrenbor da sagardotegian zerbitzari euskalduna behar da asteburuetan lan egiteko. ☎948 637212.

**MOTORRAK**  
tailerrak**MENDAUR MOTOR**  
948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

**ANIMALIAK**  
opari

Bi hilabeteko ardi zakurrak oparitzeko. ☎652 729101.

**BASERRIA**

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA  
(abenduaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)

**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 35,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,014 € kiloa. (=)

**Zerramak:**  
0,400€ Kg/bizirik. (=)

**BEHIKIA**

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,01 (=)

**1.koa** 3,70 (=)

**2.koa** 3,27 (=)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,09 (=)

**1.koa** 3,80 (=)

**2.koa** 3,47 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze tikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**  
urruxak 130,00 (=)

idixkoak 200,00 (=)

**Aretze nabarrak:**

urruxak 108,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 2,70/2,80

Zaldi-behorrak: 1,55/1,69

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 7,40/8,10

8-10 kilokoak: 6,30/6,60



**ANIMALIAK**  
salgai

Artzain txakurkume alemaniar arrak salgai. Abenduaren 5ean sortuak. Benetan interesa dutenek bakarrik deitzea eskertuko da. ☎659 597051.

**ARANTZA.** 10 ardi salgai. ☎948 634181 (deitu ilunabarretik aitzinera).

**DENETARIK**  
galdu/aurkituak

**LESAKA.** Bizikleta bat agertu da ekainean. ☎948 637005.

**LESAKA.** Bizikleta agertu da, haurraren aulkia gibelean duela. ☎948 637005.

**DENETARIK**  
salerosketak

**SUNBILLA.** Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287 /699 461394.

Ferroli gasolio berogailua salgai. Gutti erabilia eta egoera onean. ☎618 962777.



Zero Sette markako trikitixa erosi nahi da. ☎635 334816.

1,10x1,25 metroko 10 kontraleiho eta 5 leiho eta 1,10x2,25 metroko 3 kontraleiho salgai. Bigarren eskukoak. ☎690 256709.

3 metroko haritzezko armairua salgai, 3 moduluko. Egoera onean. ☎617 461649.



Lau su dituen sukalde industriala salgai, Repagas markakoa. Lapiko erdoilgaitzak ere bai. ☎617 461649.

**Egurrezko sukaldea** salgai. Deville markakoa eta 76 cmko zabalera. Modu onean. ☎948 635273.

**Burdinezko futbolina** salgai. 650 euro. ☎636 996627.

**Yamaha bajua eta Amp-peg AP-15** amplia salgai. Flight case fundarekin biak. ☎685 633 195.



**Sukalde berria** salgai, etxe-tresnak barne (hoz-

kailua, garbigailua eta mikrouhin labea izan ezik). Neurriak: 2,070 x 3,070. ☎699 393846.



**DENETARIK**  
bertzelakoak

**Dominikar Errepublikan, Ekuatore Ginea eta Ginea Bissauko umeak** udan etxean hartzeko eta umeak apadrinatzeko familiak behar dira. ☎634 401978.

# urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



**GARAZI SANTESTEBAN OTXANDORENA** zubietarrak urteak beteko ditu abenduaren 16an. Aunitz urtez eta muxu bat! Naroa, Uxue, Iker eta Ekaitz.



Elizondoko **JOANÉS JAUREGIRI** zorionak abenduaren 18an, zure lehenbiziko urtebetetzeagatik. Muxu haundi bat aita, ama eta Mikelen partetik.



Aunitz urtez **ARKAITZ!** Hagitz ongi pasa eguna eta ea etxekoak afari goxo batera gonbidatzen gaituzun. Muxu haundi bat!



**GURUTZE PIKABEAK** urteak beteko ditu. Aunitz urtez eta probexu ezkondu gabe-ko azken hila-beteak! Lankideak.



**ANDONI TELLETXEA APEZTEGIA** beratarrak 6 urte bete ditu abenduaren 31n. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik. Aupa pilotari!



Urteak bete dituzte abenduaren 18an eta 20an. Zorionak zuen lehenbiziko eta hirugarren urtebetetzeetan. Musu haundi bana etxeko guztien partetik.



Donamariako **IBINKA ERBITIK** 7 urte bete ditu abenduaren 19an. Zazpi muxu haundi familia guztiaren partetik. Guapa!



**IZARO** eta **JOSU LARRAIOZ ALZURI** anai-arrebek urteak beteko dituzte ilbeltzaren 14 eta 28an. Aunitz urtez amatto, attatto, eta Arantzako, Urrozko, Oizko eta Donostiako familien partetik. Marubizko muxuak bihurri ttikiel!



Beartzungo **NEREA DAGERREK** 6 urte bete ditu urtarrilaren 1ean. Zorionak Zugarramurdiko amatxi eta familia guztiaren partetik.



Goizuetako **LOREA SALDIAS MAKAZAGA** gure neskak poxo-xak urtea bete du abenduaren 31n. Zorionak eta muxu bat familia guztiaren partetik.



**EKINE GARAZO GAMIO.** Gazteluko familiaren partetik, berexiki amatxi Engraxiren partetik, zorionak eta txokolatezko muxuak.



**EKINE GARAZO GAMIO.** Zorionak ama, Asier, Markel eta Ugaitzen partetik. Marrubizko muxuak. Gure neskatarik politena zara.



**EKINE GARAZO GAMIO.** Familiaren eta amatxi Engraxiren partetik, zorionak gure neska politari. Aupa gure sorgintxo!



Berte urte batez urrun egonen zara zure zorion egunean, baina gure bihotza maitasunez beteta zurekin egonen da. Zaindu eta zure irrifarrea gorde, behar dugu eta! Maite zaituztegu eta etxean behar zaituztegu! Familia osoaren partetik.



Berroetako **MAIALEN MIGELTORENA**, Oronozko **GAIZKA OTEIZA** eta **XANTI ETXAIDE** eta Artikako **AITOR MIGELTORENA** lehengusuek azaroan, abenduan eta urtarrilean urteak bete dituzte. Zorionak Berroetako familiaren partetik eta bereziki Enekoren partetik. Muxu haundi bana.



Donamariako **INAKI TELLETXEAK** abenduaren 29 urteak bete ditu. Zorionak attatto, bereziki Nahia eta Ekainen partetik. Muxu haundi bat!




**AROA MARTIN ALDUNTZIN** beratarrak 9 urte egin ditu abenduaren 27an. Zorionak eta muxu handi bat attuna, amona eta osaba Iñakiren partetik.



Berako **LEXURI PEREZ ALEJOSEK** urtarrilaren 8an urte bat beteko du. Aunitz urtez familiaren eta berexiki Eneritz ahizparen partetik.



Etxalarko **ANDER LARBURU ELIZALDEK** urtarrilaren 21ean urtea beteko du. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Zubietako **NAIARA ANSOK** urtarrilaren 10ean 8 urte beteko ditu. Atta, ama, Ane ahizpa eta amatxi Julianaren partetik muxu haundi bat.



Lesakako **MADDI HOYOS EGUZKAGIRREK** 2 urte beteko ditu urtarrilaren 12an. Zorionak berri-txu! Muxu haundi bat etxekoan partetik.



Zorionak izeba **ESTITXU!** Zu zara gure txapelduna! Ea noiz joaten garen berriz ere zure pisura jolastera eta lotara!

Inguruko ekitaldiak, informazioa eta bitxikeriak jakin nahi badituzu


Egin zaitetz **ttipi-ttapa** ren harpidedun

- Hego Euskal Herria 37€
- Europa 55€
- Baztan, Urdazubi eta Malerreka 31€
- Amerika eta Australia 123€
- Ipar Euskal Herria 55€
- Leitza 15€

**Nafarroako Eskola Ttikien Jardunaldiak**

(0034) 948 63 54 58  
www.ttipi.net

# merkealdia



**Mendibil**  
parque comercial  
merkataritza gunea

ZURE MERKATARITZA GUNEA IRUNGO ERDIGUNEAN

[www.parquecomercialmendibil.com](http://www.parquecomercialmendibil.com)



# LURDJOTAK <sup>URTARRILAK</sup> 8 <sub>LABUNBATA</sub>

01:00 - 02:00 Dohainik  
02:00etatik aintzitera 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

# LURDJOTAK <sup>URTARRILAK</sup> 15 <sub>LABUNBATA</sub>

01:00 - 02:00 Dohainik  
02:00etatik aintzitera 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

# GATTIBU <sup>URTARRILAK</sup> 22 <sub>LABUNBATA</sub>

00:30 - 12€

# ZOPILOTES <sup>URTARRILAK</sup> 29 <sub>LABUNBATA</sub>

# TXIRRIAOS IMPEKABLESOHIAK

00:30 - 9€

## OTSAILAN...

### LUR MAITEA

NIKO ETXART, TXOMIN ARTOLA, PEIO ETA PANTXOA, ERRAMUN MARTIKORENA,  
URKO, GORKA KNORR, ANJE DUALDE, GONTZAL MENDIBIL ETA XEBERRI,  
JEAN MIXEL BEDAXAGAR, NAIA ROBLES ETA XABI SAN SEBASTIAN

<sup>OTSAILAK</sup>  
**19**  
<sub>LABUNBATA</sub>



garagardotegia

## MENUAK, MUSIKA ZUZENEAN...

OSTIRAL, LABUNBATA ETA JAIEGUNEKO BEZPERETAN IREKIA  
ERRESERBAK: TEL. 948981883



WWW.LURELIZONDO.COM